# Berrigara

BERGARA / Eguena / 2004ko abenduaren 23a / 610. zenbakia

# 2004 urteari begiratua

## BERGARA

Geyser GASTECH S.A.
San Juan auzoa z/g 151 Posta kodea
BERGARA • 943 76 90 04
**PROFESIONALTASUNA, GAS BEROGAILUEN EKOIZPEGINTZAN**
1997ko irailean, Bergaran Geyser Gastech Teknologi eta Ekoizpen Zentrua sortu zen. Gure bezero, lankide eta eskualde honetako jende oro agurtu nahi ditugu.




# PROFESIONAL *liberalen* GIDA

## ABOKATUAK

**RAFAEL ARANBURU**
Irizar 5. 943 76 10 81

**MILAGROS LARRAÑAGA**
Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Irizar 5. 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Irizar 2. 943 76 03 35

## GESTORIAK

EGUREN
Irala 3. 943 76 21 65

## PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

## ARKITEKTU TEKNIKOA

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
Zurradero 4. 943 76 53 53

## AHOLKULARITZA

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Artekalea 1. 943 76 03 50

**TBG AHOLKULARITZA**
Matxiategi 36. 943 76 90 83

## ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA
Barrenkalea 22. 687 73 75 67

**Gabon zoriontsuenak opa dizkizuegu guztioi!**

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer eskatzen diozu urte berriari?



**NURIA ZAFRA**
**30 urte**

Urte berria familia giroan hasi nahi nuke eta urtea ere euren aldamenean pasatu. Bestalde, bakea ere eskatuko nuke. Bakerako bidean behintzat poliki-poliki pausoak ematea.



**JOSUNE EZENARRO**
**34 urte**

Arlo pertsonalean aurtengoa bezain ona izatearekin konformatuko nintzateke. Gainontzean, berriz, Bush desagertzea eta gerrarik eta goserik ez egotea eskatuko nioke urte berriari.



**AGUSTINA HERRAN**
**57 urte**

Munduan bakea izatea eta goserik ez egotea nahi nuke, Telebista piztu eta albiste pozgarriak ikusi eta entzutea. Izan ere, pobrezia eta gerra baino ez dizkigute erakusten.



**JON PEREZ DE VIÑASPRE**
**31 urte**

Euskal Herriko egoera konpontzea. Karta guztiak mahai gainean dauden honetan elkarrizketaren bidetik bakea eta askatasuna lortzea lirateke urte berrirako nire desioak.



**TEODORO KORTABARRIA**
**71 urte**

Osasuna eta bakea. Niretzat eta ingurukoentzat osasuna eta Euskal Herriarentzat bakea. Euskal Herrian lortzen badugu beste tokietan ere egon litekeela uste dut, eta denontzat da ona bakea.



**JOSE RAMON MADINABEITIA**
**66 urte**

Datorren urtea aurtengoa bezalakoa izatea eskatuko nuke, ongi joan zait eta. Gainontzean bakea eskatu behar dugu lehenengo guretzat eta gero baita munduko beste lekuetarako ere.

## ETABARRUAN...

GAINBEGIRATUA /3
URTEA DATUTAN /4-5
ONENA ETA TXARRENA /6-7
DATORRENA DATORRELA /44-45
ERRETRATU ZAHARRA /46

URTEARI GAINBEGIRATUA

**Urtarrila /8-11**
**Otsaila /12-13**
**Martxoa /14-15**
**Apirila /16-19**
**Maiatza /20-21**
**Ekaina /22-27**
**Uztaila /28-29**
**Abuztua /30**
**Iraila /32-35**
**Urria /36-37**
**Azaroa /38-41**
**Abendua /42-43**

Berrigara
**2004**
urteari begiratua
BERGARA

## ZURIETABELTZ





**LEHEN MAILAKO TXIRRINDULARITZA BERGARAN**
Euskal Herriko Itzuliaren lehen etapa Bergaran jokatu zen apirilean. Antolaketa bikaina izan zen eta zaleek txirrindularitzarekin gozatzeko aukera izan zuten.

**LANBIDE HEZIKETAREN INDARRA**
Bergaran lanbide heziketa hasi zela 75 urte bete dira. Enpresa askoren iturri izaten jarraitzen du Miguel Altuna ikastetxeak.

**BERGARA, PLATO BIHURTUTA**
*Aupa Etxebeste!* film luzearen filmaketa zela eta, herritarrek erabateko inplikazioa erakutsi zuten Asier Altuna *Kixi* eta Telmo Esnalen lanean.

**KIROLARIAK SASOITSU**
Kirolarien indarraren lekuko, Unai Perez de Arenaza mendizaleak bide berria ireki zuen Shisha Pangman, Himalaian.

**100. URTEURRENAK**
Telesforo Monzonen jaiotzaren eta Batzokiaren sorreraren 100. urteurrena ospatu dira aurten. Antolatutako ekitaldiek erantzun bikaina jaso dute.

**HERRIKO ELKARTE ETA TALDEAK**
Herriko taldeen eskutik ez da ekitaldirik falta izan, eta beraien kemena txalotzekoa da.

**BERGARA AURRERA, UDALBATZATIK KANPO**
Udalbatza osatzen duten alderdiek ez dute asmatu Bergara Aurrera plataformari lekua egiteko orduan. Aralar izan da konponbiderako urratsak egin dituen bakarra.

**NAHASMENA UR KOLEKTOREAREN LANAK DIRELA ETA**
Ur kolektorearen lanek sekulako zirkulazio nahasmena sortu dute herri barruan. Aurreikuspen falta nabaria izan da hainbat kasutan.

**KIROLGUNEKO FINANTZAKETA?**
Atzerapenarekin izan bada ere, hasi dira kirolgune berriko lanak. Hala ere, proiektu horren finantzaketa argitzeke dago oraindik.

**JAI GIROAK BEHERA**
Gaueko giroak behera egin du, eta Pazkoetan nabarmena izan zen hori. Hainbat herritar giroa suspertzeko ahaleginetan ari dira.

**URTEAGAN ERREPIDEA ITXITA**
Bergaratik Antzuolarako irteerak itxita jarraitzen du, Urteagan. Urtebete pasatxo da itxi zutenetik, eta lanak ez dira hasi.

**AUDITORIOAREN ZAIN**
Kultur emanaldietarako areto egokirik gabe jarraitzen dugu.

**EHUNGINTZA: GARAI BATEKO SEKTORE INDARTSUA BEHERA**
Hainbat ehungintza enpresa itxi dituzte, krisiak jota.

Berrigara
Irizar Jauregia• Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Irati Agirreazaldegi
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitane Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Eneko Azkarate
Leire Kortabarria

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:
Eusko Jaurlaritzako Kultura saila
Gipuzkoako Foru Aldundia
Bergarako Udala
Antzuolako Udala
Elgetako Udala
Posta-e: berrigara@goiena.com

# URTEA DATUTAN

*2004. urtea bukatzear dago eta era guztietako gertakariak albiste izan dira urtean zehar. Sasoi honetan ohikoa denez, herriari buruzko hainbat datu jaso nahi izan ditugu urtekarian, irakurleen kuriositatea asetzeko asmoz. Urteari gainbegiratua ematen diogun zenbaki honetan, horra hainbat datu, interesgarriak izango zaizkizuelakoan.*




## LIBURU salduenak

EUSKARAZ
1. **Soinujolearen semea**
   Bernardo Atxaga
2. **Kolosala izango da**
   Joseba Sarrionandia
3. **Manila konexioa**
   Jon Arretxe
4. **Han goitik itsasoa ikusten da**
   Julen Gabiria

GAZTELANIAZ
1. **El codigo Da Vinci**
   Dan Brown
2. **La sombra del viento**
   Carlos Ruiz Zafon
3. **Angeles y demonios**
   Dan Brown
4. **El hijo del acordeonista**
   Bernardo Atxaga



## DISKO salduenak

EUSKARAZ
1. **Betizu**
   Bizi bizi
2. **60ak+2**
   Mikel Laboa
3. **Inorren ero ni**
   Inoren ero ni
4. **Zaharregia, txikiegia agian**
   Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin

GAZTELANIAZ
1. **Lo mas lejos a tu lado**
   Fito y los Fitipaldis
2. **Para que no se duerman mis sentidos**
   Manolo Garcia
3. **28.000 puñaladas**
   Marea
4. **Fantasia o realidad**
   Alex Ubago




## FILM ikusienak

1. **El ultimo samurai**
   Edward Zwick
2. **Te doy mis ojos**
   Iciar Bollain
3. **Mar adentro**
   Alejandro Amenabar
4. **Las chicas del calendario**
   Nigel Cole
5. **El señor de los anillos**
   Peter Jackson
6. **La sonrisa de Mona Lisa**
   Mike Newell
7. **21 gramos**
   Alejandro G. Iñarritu
8. **Mystic River**
   Clint Eastwood
9. **Planta Cuarta**
   Antonio Mercero
10. **Cuando menos te lo esperas**
   Nancy Meyers




## BIDEO hartuenak

1. **Dias de futbol**
   David Serrano
2. **Piratas del Caribe**
   Gore Verbinski
3. **Master and comander**
   Peter Weirguion
4. **The italian job**
   F. Gary Gray
5. **Buscando a Nemo**
   Andrew Stanton
6. **El ultimo samurai**
   Edward Zwick
7. **Cold mountain**
   Anthony Minghella
8. **Oceanos de fuego**
   Joe Johnston
9. **El dia de mañana**
   Roland Emmerich
10. **Yo, robot**
   Alex Proyas



## AUTO salduenak

1. **Ford Focus**
2. **Ford Mondeo**
3. **Opel Astra**
4. **Citroen C3**
5. **Peugeot 307 eta Volkswagen Golf**
6. **Opel Zafira**
7. **Ford Fiesta**
8. **Seat Leon**
9. **Citroen C5**

## EGUNKARI salduenak

1. El Diario Vasco
2. Gara
3. Berria
4. Deia
5. Marca

## ALDIZKARI salduenak

1. ¡Hola!
2. Lecturas
3. Semana
4. Mia
5. Pronto

## Egunik BEROENA

2004ko abuztuaren 1a

**39ºC**

## Egunik HOTZENA

2004ko martxoaren 3a

**-3ºC**

## Egunik EURITSUENA

2004ko azaroaren 10a

**55,8 L**

## BIZTANLE kopurua

**14.918**

**Jaiotakoak**
**121**

**Hildakoak**
**121**

**Etorritakoak**
**319**

**Joandakoak**
**281**

**ALDEA**
**+38**

**Iaz baino 73 bizilagun gutxiago gara Bergaran, joan den urtean 14.991 bizilagun ginen-eta. Bestalde, goiko datuetan ikusten denez, jaiotakoak eta kanpotik herrira etorri direnak hil direnak eta kanpora joan direnak baino gehiago izan dira aurten: 38 lagun gehiago, hain zuzen.**

2004ko urtarriletik 2004ko abenduaren 13ra bitarteko datuak jaso ditugu.



Instalakuntza moderno eta guztiz erosoekin, gure bezeroek merezi duten kalitatezko zerbitzua eskainiz.

Ariznoa
HOTELA

Telesforo Aranzadi, 3
Tel. 943 761 846 - 943 761 847 Faxa: 943 761 848
20570 BERGARA - Gipuzkoa

# Urtean HILDAKOAK

## URTARRILA

2 Mari Cruz Roman Perez de Albeniz. 95 urte
4 Maximiana Garcia Ruiz. 91 urte
5 Juan Hervas Hervas. 81 urte
Elisabet Arzelus Fdez. de Arroiabe. 77 urte
6 Manuel Egibar Arieta-Araubeña. 63 urte
9 Maria Luisa Biain Uriarte. 80 urte
10 Segunda Santorcuato Lizarralde. 99 urte
Antonia Arrieta Intxausti. 73 urte
Maritxu Loidi Gabilondo. 87 urte
13 Jose Luis Zabaleta Gantxegi. 82 urte
14 Felisa Larreina Txabarri. 81 urte
18 Manuel Larrañaga Garitano
19 Manuela Muguruza Lizasu. 87 urte
23 Aniceto Zumelaga Ajuria. 70 urte
27 Antonio Delgado Otero. 87 urte
Mari Paz Mondragon Madina. 57 urte
28 Nikolasa Bilbao Goirizelaia. 83 urte
30 Consuelo Bideluze Barandiaran. 91 urte
31 Gregorio Mujika Garmendia. 65 urte

## OTSAILA

3 Lorenzo Arrizabalaga Aizpurua. 84 urte
5 Jose Goikoetxea Agirreolea. 71 urte
Caya Lopez de Mendiguren. 86 urte
8 Dionisio Bolibar Egibar. 94 urte
13 Angel Gomez Perez. 79 urte
Maria Sato Perez. 91 urte
Rufina Jauregi Laskurain. 99 urte
27 Pedro Aranguren Gabilondo. 57 urte

## MARTXOA

5 Amparo Navarro Ibarguren. 96 urte
7 Juan Larrañaga Azkoitia. 88 urte
8 Karlos Etxaniz Etxeberria. 55 urte
9 Luisa Torres Ortilluelo. 88 urte
12 Jose Asenjo Zigorraga. 73 urte
15 Jesus Sanchez Etxeberria. 81 urte
19 Patxi Alberdi Agirre. 81 urte
21 Premen Sanchez Garcia. 68 urte
23 Mateo Alberdi Garbizu. 76 urte
26 Jose Mengual Aguayo. 73 urte
27 Mª Luisa Osinalde Mujika. 72 urte
28 Juan Astigarraga Garmendia. 84urte
Concepcion Izurrategi Zubia. 77 urte
29 Marino Galdos Ezkibel. 71 urte
31 Martin Alberdi Garbizu. 71 urte

## APIRILA

2 Pilar Aranburu Blanco. 90 urte
7 Asuncion Juaristi Gantxegi. 94 urte
8 Jose Antonio Mendizabal. 72 urte
11 Moises Manso Telleria. 75 urte
14 Jose Bereziartua Irazusta. 75 urte
Miren Eizagirre Isasti. 57 urte
Juan Aristegi Agiriano. 87 urte
18 Paula Ormazabal Igartua. 89 urte
19 Angelita Marko Gantxegi. 92 urte
21 Antonio Comendador Sanchez. 65 urte
Blasa Ortiz de Zarate Zuazo. 84 urte
27 Agustin Etxeberria Biskalaza. 81 urte

## MAIATZA

5 Felipe Badiola Lete. 76 urte
17 Basilia Garai Santa Cruz. 83 urte
18 Maria Martin Mateos. 50 urte
19 Elisa Gantxegi Telleria. 91 urte
20 Jose Luis Egino Zabaleta. 52 urte
22 Felix Sanchez Martin. 42 urte
Armando Gallastegi Etxaniz. 63urte
27 Martina Oruesagasti Igartua. 79 urte
28 Jose Mari Imaz Bastarrika. 76 urte
30 Julia Cifuentes Lopez. 76 urte

## EKAINA

3 Natividad Ilarduia Arza. 74 urte
8 Florentino Agirrezabal Ondarre. 82 urte
12 Florentino Murgiondo Etxabe. 90 urte
Esteban Aldekoa Irazola. 88 urte
18 Jesus Beristain Aldalur. 81 urte
Esteban Garitano Eguren. 71 urte
29 Jose Antonio Maiztegi Gantxegi. 73 urte
30 Pedro Martin Zabaleta Zurutuza. 51 urte

## UZTAILA

2 Jose Mari Arzelus Arruabarrena. 77 urte
4 Klara Muruamendiaraz Alberdi. 80 urte
9 Juana Elgezua Arrube. 79 urte
14 Pedro Gallastegi Gabilondo. 69 urte
15 Jose Joaquin Aranguren Zendoia. 85 urte
24 Felipe Azpiazu Alberdi. 73 urte
27 Milagros Castelo Hernandez. 46 urte
Raimundo Azkarate Elexpuru. 84 urte

## ABUZTUA

5 Carlos Garcia Barberan. 67 urte
9 Maria Mendizabal Eguren. 93 urte
10 Felisa Egiguren Alberdi . 73 urte
11 Bitor Osoro Olaberria 87 urte
14 Mariano Jauregi Mujika. 74 urte
15 Jacinto Cuadrado Lopez. 71 urte
16 Juanita Agiriano Argarate. 85 urte
18 Begoña Gorosabel Aranzabal. 53 urte
19 Luis Corral Martinandiarena. 82 urte
26 Antonia Irala Idigoras. 89 urte
29 Marta Arizabaleta Kortabarria. 92 urte
Maria Odriozola Elkoro-Berezibar. 95 urte
30 Miren Ursain Victoria. 89 urte
Tomasa Zabaleta Barrutia. 91 urte

## IRAILA

2 Txomin Gurrutxaga Lizarralde. 90 urte
4 Igone Belaztegi Aizpiri. 68 urte
9 Julian Txopitea Iturbe. 94 urte
12 Antonio Gantxegi Garitano. 77 urte
14 Maria Eguren Makazaga. 83 urte
16 Josu Ibabe Guridi. 42 urte
22 Tomas Unamuno Leibar. 88 urte
26 Juanita Perea Garcia. 73 urte
28 Fuensanta Fernandez Angulo. 73 urte
30 Maria Fernandez Lopez. 85 urte

## URRIA

4 Isabel Gurrutxaga Lizarralde. 88 urte
5 M. Asuncion Zumelaga Azkarate-Askasua. 73 urte
9 Rosario Muruamendiaraz Arregi. 92 urte
11 Encarnacion Betozke Urtain. 91 urte
Luis Mari Oregi Arregi. 63 urte
12 Victoriano Azula Askasibar. 85 urte
15 Maria Anjeles Bardeci Ortiz de Barrón. 70 urte
18 Victor Marcilla Jimenez. 76 urte
19 Eusebio Arando Alberdi. 80 urte
20 Martina Agirre Bengoa. 89 urte
Milagros Osoro Alberdi. 65 urte
24 Divina Pastora Murua. 89 urte
Jose Antonio Larrañaga Urrutia. 64 urte
M. Piedad Gaztañaga Ibarzabal. 96 urte
26 Barbara Albizu Belarrain. 84 urte
Victoria Gutierrez Olaiz. 83 urte
27 Benita Otxoa de Angiozar Berriolope. 79 urte
28 Isabel Alegria Urzelai. 86 urte
29 Josefa Jauregi Idigoras. 88 urte
Juan Francisco Manzano Orduña. 81 urte
M. Teresa Barrenetxea-Arando Etxaniz. 81 urte
30 Gloria Ortega Delgado. 75 urte
31 Divina Zabala Aldai. 75 urte
Pedro Jose Eguren Uriarte. 67 urte

## AZAROA

2 Pedro Carricajo Lopez. 72 urte
3 M. Pilar Oregi Arregi. 80 urte
4 Luis Rodriguez Fernandez. 64 urte
11 Leonardo Laskurain Irizar. 70 urte
16 Julian Valle Lobo. 96 urte
23 Juan Ramon Agiriano Aiastui. 49 urte
25 Juana Sanchez Pineda. 67 urte
25 M. Angeles Mendizabal Basauri. 75 urte
28 Jazinto Markiegi Laskurain. 88 urte

## ABENDUA

4 Celia Gomez Casado. 92 urte
7 Hilario Gorriti Aranguren. 82 urte
8 Maria Murua Idigoras. 91 urte
13 Alicia Lopez Rodriguez. 71 urte
13 Amaia Ibarra Irazusta.

Jaiotakoen eta hildakoen gaineko datuak: 2004-01-01 /2004-12-16






HORTZ KLINIKA
Silvana Caviglia doktorea
Simon Arrieta plaza 3, 2. Tel.943 76 38 54 BERGARA
Gabon zoriontsuak denoi!



ASEGURUAK
·Sermesa
Pakea
Grupo Eroski
·Ibersalud Globalcard
Aegon
Asepeyo
·Mapfre
·Fremap
·Ocaso
·Azkaran
·Previsora

# ONENA ETA TXARRENA

*Urteak berri asko ekarri dizkigu: onak batzuk, txarrak besteak. Amaitzear dago 2004. urtea eta albisteak balantzan jartzeko ordua iritsi da.. Hainbat herritarrengana jo dugu eta eurek egin digute urtearen balantzea. Eskatu diegu urteak eman dituen berrien artean euren ustez onena eta txarrena zein izan diren esateko. Erantzunak askotarikoak izan dira.*



**ENERITZ MADARIAGA**
Gabero abesbatzakoa

**HOMOSEXUALEN EZKONTZAK** onartzea aurrerapauso garrantzitsua da gay eta lesbianek egiten dihardunten borrokan. Bestalde, Gaberok Holandako lehiaketan lortutako postu ona ere aipagarria da guretzat.

**ARETO EGOKIRIK EZ HERRIAN-** Herri guztia obrak direla eta hankaz gora egon da. Baina oraindik badira herrian hobetu beharreko gauzak. Kanturako ez dugu lokal egokirik eta zinema aretoa bera ere ez dago ongi.



**OIHAN VEGA**
Kazetaria

**PP BOTERETIK KENTZEA** Espainiako alderdirik eskuindarrenak boterea galtzea ontzat jo behar da. Horrekin ez dut esan nahi PSOEk boterea eskuratzea ona denik, gauzak ez baitira askorik aldatu.

**IRAKEKO GERRA** Herrialde askok entzungor egin arren gerrak indarrean jarraitzen du eta egunero hiltzen da jendea. AEBen jarrera ezin daiteke onartu. Gainera, Bush berriz aukeratuta ez dira gauzak aldatuko.



**PELLO GARITANO**
Lokatza Txirrindulari Elkartekoa

**EUSKADIKO ITZULIA** Bergaran amaitu eta hasi ziren Euskadiko Itzuliko hainbat etapa. Horrek ekarri zuen talde bat lanean gogor jardutea. Amaitutakoan lasaitasuna eta poza sentitu genituen batera.

**MARTXOAREN 11** Madrilen izandako leherketak eta haren ondorioak latzak izan ziren, eta oraindik horrekin bueltaka dabiltza. Gainera, hasieran ETAkoak izan zirela esan zuten eta euskaldunoi errua bota.



**JESUS ALBERDI 'EGILEOR'**
Bertsolaria

**ELOSUN SEI HILABETE** pasa ditut eta denboraldi hori izan da niretzat urteko onena. Izan ere, erretiratuta ongi bizi gara. Orain loteria tokatzea baino ez zaigu falta. Gainontzean albiste txarrak dira nagusi.

**HERRIAREN EGOERA** Obrekin aparkatzeko arazoak izaten dira eta buruhauste ugari sortzen dizkio bati baino gehiagori. Dena dela, denon onerako izango delakoan nago eta pazientziaz hartu behar dugu.



**INA LARRAÑAGA**
Migel Altuna institutuko zuzendaria

**KOMUNIKAZIOA HOBETUZ** Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko komunikazioa zabaldu dela dirudi. Orain arte itxita zeuden ateak irekiz doaz pixkanaka, eta harremanak normalduz.

**TRATU TXARRAK** Emakumeek gizonen aldetik jasaten dituzten tratu txarrek gora egin dute eta baita salaketek ere. Hori kontuan hartu gabe oraindik ezkutuan gordetzen duen jende asko dagoela.



**ALFREDO GONZALEZ**
Udal Musika Bandaren zuzendaria

**KONPONBIDERAKO NAHIA** Borondaterik ez da falta oinarrizko gauzetik hasi eta konponbidea bilatzeko. Aurten hainbat pauso eman dira arlo horretan, baina gizartea aldatzeko pauso handiagoak behar dira.

**MUNDUKO INJUSTIZIAK** Urtetik urtera konponduko diren esperantza badaukagu ere, gero eta gehiago dira gizartean ikusten ditugun logikarik gabeko injustiziak. Gainera, normaltzat hartzera heldu gara.



**ASIER ALTUNA**
Zinema zuzendaria

**ZINEMA EUSKARAZ** Aspaldiko partez aurten errodatu dugu *Aupa Etxebeste!* euskarazko filma, datorren urtean estreinatuko dena. Gainera, filmeko zati bat Bergaran grabatu genuen.

**BUSH BERRIZ AUKERATU** dute presidente, eta horrek mundu mailan eragin txarrak ekarri ditu. Bushek irabaztearekin batera gerra giroak eta armek irabazi dute, munduko beste herrialde batzuen kalterako.

Urte berri on!



EL CARMEN
GARBIKETA
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego
Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39 20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23



**JUAN ITURRALDE**
San Joxepe elkarteko presidentea

**SALGADO ALBA SARIA** jaso zuen San Joxepe erretiratuen elkarteak Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen eskutik. Elkartea berritzeko egindako lana saritu nahi izan zuten horrela.

**IRAKEKO GERRA** eta harekin lotuta martxoaren 11ko atentatua. Madrilen gertatua ekintza puntuala izan zen eta jadanik askok ahaztuta ere badu, baina gerrak oraindik jarraitzen du Iraken.



**OLATZ OLASO**
Jardun elkarteko presidentea

**EUSKALGINTZA ELKARTUTA-** Herrian euskararen alde lanean dihardugun taldeak elkartu eta hainbat ekimen aurrera eraman ditugu; hala nola, Euskararen Eguna eta euskara ikastearen aldeko kanpaina.

**LAGUNTZA GUTXI** Euskararen aldeko geroago eta ekimen gehiago egiten da, eta hori positiboa da; baina, administrazioaren laguntzek gora egiten ez dutenez, bakoitzari geroago eta gutxiago iristen zaigu.



**IÑAKI LABAKA**
Udaltzaina

**JENDEAREN PAZIENTZIA** Azpimarratzekoa da azkenaldiko obren aurrean jendeak izan duen jarrera ona. Bestalde, aipatzekoa da geroago eta udaltzain gehiago gaudela eta gure arteko harremana oso ona dela.

**KEXA GUZTIAK GUREGANA** Aparkaleku faltagatik edo beste edozein arazorengatik, jendeak guregana jotzen du kexatzera eta haserrea deskargatzera, Udaleko arduradunengana jo beharrean.



**MIREN ARANTZABAL**
Aspaceko langilea

**EGOITZA BERRIA** Orain dela gutxi zabaldu dugu egoitza berria Santa Marina ondoan eta hori oso garrantzitsua izan da guretako; batez ere, herritarrengandik hurbilago gaudelako orain.

**GARRAIO PUBLIKOA** Bergarako eta Debagoieneko garraio publikoa ez dago elbarriendako prestatuta; plataformak dituzten autobusetan ere beti dago arazoren bat, aparailua hondatuta dagoelako.



**MAIDER OSA**
Kultura teknikaria

**AZNAR GALTZAILE ATERATZEA** hauteskundeetan; legealdi penagarri bat bukatu eta fase politiko itxaropentsuago bati ekiteko. (*Prestige*, martxoaren 11koaren inguruko gardentasunik eza, gatazka politikoaren tratamendua...).

**MARTXOAREN 11KO** atentatuen inguruan alderdi politikoek egindako erabilera, biktimei errespeturik eta sentsibilitaterik erakutsi gabe; eta PPren gobernuak egiletasunaren inguruan sortu zuen nahasmena.



**MARI KARMEN ITURBE**
Landa Garapenerako elkartekoa

**PENTSU EKOLOGIKOA** Olaberrin ganaduzaleendako pentsu ekologiko lantegi berria zabaldu dute; hala, ganaduzaleei aukerak asko zabaltzen zaizkie, eta era berean, kalitate hobeko janaria izango dugu.

**TRANSGENIKOAK** Hala ere, produktu transgenikoek merkatuan jarraitzen dute, nahiz eta oraindik ez dakigun produktu horiek ze eragin izan dezaketen. Interes komertzialek agintzen dute horretan.



**AMAIA OSA**
Txapa irratiko kidea

**IRRATI LIBREAK ELKARTUTA** Aurten irrati libreen Arrosa proiektuan sartu gara eta hori oso positiboa izan da guretako; proiektu horri esker, gure irratsaioak Euskal Herriko toki askotan entzun daitezke.

**KONPROMISO FALTA** Geroago eta irratsaio gehiago ditugu, eta hori oso ona da, noski; baina, era berean, oso zaila gertatzen zaigu benetako konpromisoa hartzen prest dagoen jendea aurkitzea.



**KORO IRAEGI**
BEKE elkarteko kidea

**GAZTEAK KONTZIENTZIATZEN** Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren gainean eta tratu txarren gaiaren gainean jende gaztea, pixkanakapixkanaka, kontzientzia hartzen doala iruditzen zait.

**TRATU TXARRAK** Emakumeen aurkako tratu txarren albisteak eguneroko kontu bihurtu dira; eta, beldur naiz, azkenean, ez ote garen iritsiko albiste horietara ohitzera eta jaramonik ez egitera.



**JOXE LAZKANO**
Etxerat-eko kidea

**'PANTI'-REN ETORRERA** izan da beharbada gure taldetik begiratuta aurten gertatu den onena. Baina kontuan hartuta behar baino geroago askatu dutela, ezin esan dezakegu guztiz ona izan denik.

**PRESOEN DISPERTSIOA** eta haren ondorioak. Dispertsioak eraginda gertatu diren senideen heriotzak eta istripuak hor daude. Politikoek eta elizak horren aurrean azaltzen duten jarrera isila salatzekoa da.



**RAUL SANCHEZ**
Gazte Asanbladako kidea

**JENDE BERRI ASKO** Azkeneko urte honetan jende berri asko sartu da Gazte Asanbladan; ni neu ere aurten hasi naiz asanbladan parte hartzen. Geroago eta indar handiagoa hartzen doa.

**KOADRILEN LOKALAK** Oraindik ere gazte koadrila askok hartzen dituzte errentan lokalak; gainera, gazte batzuek uste dute Gazte Asanblada gazte batzuen kontua bakarrik dela, eta hori ez da horrela.

C O E G
Tf. 943 76 56 88
J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea
Odontologia orokorra
Inplanteak
Ortodontzia
Ahoko zirugia
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
Ondo ibili gabonetan!

# URTARRILA



*"Nire burua ondo ikusten dut, eta ez dut oraingoz erretiroan pentsatzen"*

**JOSE MARI ZEZEAGA**/ PILOTARIA

2004-01-30



*"AHTri buruz, eskaera bat agintariei: herriari entzun"*

**JON SUINAGA** / KOLABORATZAILEA

2004-01-23

## HILEKO ESALDIA

**"Immigrazioarekin, ausartak eta eskuzabalak ez izan arren, izan gaitezen, gutxienez, errealistak"**

**IÑIGO GARITANO** / KOLABORATZAILEA

2004-01-16

## HILEKO DATUA

**1.200**

**SINADURA BATU ZITUEN APPALDEK**

Pentsio duinagoak aldarrikatzeko sinadurak batzen ibili ziren Appaldekoak; Bergaran 1.200 batu zituzten. /2004-01-30



### Sahararrendako lau tona elikagai eta 3.000 euro jaso zituzten

Udalak, Komite Internazionalistak gobernuz kanpoko erakundeak eta gaztetxeak egin zuten bat sahararren aldeko kanpainarekin. Guztira, lau tona elikagai eta 3.000 euro batu zituzten herrian, Saharara bidaltzeko: Udalak 1.500 euro eman zituen; gaztetxean 600 euro batu zituzten, eta herriko denda eta tabernetan, berriz, 1.000 euro inguru. /2004-01-30

### ETXEKO TRASTEAK JASOTZEKO ZERBITZUA, ASTERO

Mankomunitateak jakinarazi zuen etxeko trasteak astero jasotzen hasiko zirela. /2004-01-16

### ANTZUOLARAKO BIDEA ITXITA

Urteaga itxita zegoen; irakurle batek bere kexua azaldu zigun, gai horren gaineko informazio faltagatik. /2004-01-16

## AIPAGARRI



**MAITE TOLEDO**
**Idazlea**

*Deia* egunkariak antolatutako Ortzadar-Xabier Leizaola sarietan, aipamen berezia jaso zuen *Inaxi Sardaneta* Maite Toledoren ipuinak. /2004-01-30



**IÑAKI CALVO**
**Txirrindularia**

Gipuzkoako ziklokros txapelketa irabazi zuen Iñaki Calvok, 23 urtez azpikoetan. Itsasondon jokatu zen lasterketa eta 9. postuan sailkatu zen. /2004-01-16



**IÑAKI MANUEL**
**Eskubaloi jokalaria**

Gazte mailako Euskadiko selekzioarekin Espainiako Kopa Txapelketa irabazi zuen Iñakik. Gainera, txapelketako golegile nagusia izan zen. /2004-01-16

Txuringo
Jatetxea

Osintxu auzoa - Bergara
Tel.: 943 76 48 63

Gabon zoriontsuak herritar guztioi!




López Ojeda

Amillaga 25 • Industrialdea
Biltegia: 943 762 776 - 943 763 852
20.570 BERGARA (Gipuzkoa)

Covila
Errioxako ardo beltza, urtekoa

Señorio de Ojeda
Errioxa

Castillo de Ojeda
Nafarroa

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu

ATXEGA ARDOAK S.L.
Ortzaika auzoa
Tel.: 943 830 369
943 830 375
20.810 ORIO
(Gipuzkoa)

# ELUSU ERAIKUNTZAK

- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
  - Teilatuak
  - Sukaldeak
  - Bainuak
  - Fatxadak




**Baserri eta jauretxeen** erreformetan **eta txaleten eraikuntzan** espezializatuta gaude

Ondo pasau denok!

Arruriaga 5
943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45

# UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

K21 KALITATEA



- Arotz lanak orokorrean
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak





Gabon zoriontsuak herritar guztioi!



ALTZARI DENDA
Ikerleku zaharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan, 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



UDAL
EUSKALTEGIAK

Euskararentzat
bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz
argituko da noizbait
bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu
Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak
dakarkiola geureari
osasuna

BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net






“hator
hator
mutil
etxera...”

bergarako
aralar

## ALBISTEIZANZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Tranbiaren ibilbidea gehiago finkatu zen

Alvaro Amann bailarako alkateekin bildu zen tranbiaren ibilbidea gehiago finkatzeko. Aurten egingo da esleipena, Aretxabaleta-Bergara zatikoa.

2004-01-23

▸ EUSKAL HERRIAN

### Arzalluzek EBBko buruzagitza utzi zuen

Xabier Arzalluzek EBBko buruzagitza utzi zuen. Barne hauteskundeetan, Josu Jon Imaz aukeratu zuen EAJk posturako, Joseba Egibarren aurretik.

2004-01-17

▸ MUNDUAN

### Erregearen aurkako 33 marokoar, aske

Ali Lmrabet kazetaria eta beste 32 oposiziogile aske utzi zituen Marokoko Erregeak. Lmrabet-ek Kubako preso politikoen aldeko deia egin zuen.

2004-01-07

## KULTURA



### Taun Taun taldeak 'Teauene' lan berria aurkeztu zuen

Taun Taun taldeak *Teauene* helduei zuzendutako lana aurkeztu zuen. 1987. urtean *Izu ikara haripean* estreinatu zutenetik, honako hau taldearen hamargarren lana izan da. Iñaki Mata, Karlos Odriozola eta Itsaso Azkarate dira antzezlan horretako manipulatzaile-aktoreak. Poesia, ikusalderdia eta umorea uztartzen dituen lana dela adierazi ziguten Taun Tauneko kideek. /2004-01-30

GIZARTEA

### Urteagako familiendako etxeak hartu zituen Udalak

Urteaga 29ko familiek euren etxebizitzak laga behar izan zituzten 2003ko azaroan, lur eta harri jausiak zirela eta. Egoera horrek luze joko zuela ikusita, Udalak familia horiendako etxebizitzak errentan hartu zituen. Orduan iragarri zuten lauzpabost hilabeteko kontua izango zela. /2004-01-23

HIRIGINTZA

### Artekale urbanizatzeko proiektua idazteko lana esleitu zuten

Iñaki Aspiazu arkitektoari esleitu zion Udalak, Artekale urbanizatzeko proiektua idazteko lana. 11.805 euroko aurrekontuarekin onartu zuen udalbatzarrak esleipena. Orduan azaldu zuten udaletxea eta San Pedro arteko zatia bezala urbanizatuko zutela Artekale. /2004-01-30

TRAFIKOA

### Garabia hil bukaeran martxan jarriko zutela iragarri zuten

Urtarril bukaera aldera garabia martxan jarriko zutela iragarri zuten Udaleko arduradunek. Orduan adierazi zigutenez, garabia prest zegoen dagoeneko, eta erretiratutako ibilgailuak gordetzeko tokia ere laster egongo zen prest. Oraindik, baina, ez dute martxan jarri. /2004-01-16

KIROLGUNEA

### Kirolguneko lanak martxoan hasiko zituztela esan zuten

Udaleko arduradunek iragarri zuten kirolgune berriko lanak martxoan hasiko zituztela. Orduan adierazi zuten proiektua esleitzeko baldintza pleguak eredaktatzen hasita zeudela eta euren asmoa zela lehenbailehen esleitzea lehen faseko lanak. /2004-01-23

KULTURA

### Kultura Etxeko erakusketa gela liburutegi egiteko asmoa

Udal Liburutegian dagoen toki falta dela eta, kultura etxeko erakusketa aretoa liburutegiari eskaintzea erabaki zuen Udalak. Horrela, haur liburutegia erakusketa aretora eramango dute; Errotalde jauregiko lehen solairuan dago gaur egun haur liburutegia, eta honek lagako duen gela hutsean ikasteko gela bat eta liburuendako apalategiak jarriko dituzte.

Dena dela, aipatutako aldaketa horiek egin ahal izateko, lehendabizi Udalak Arostegi etxeko beheko solairuan egiteko asmoa duen erakusketa aretoa bukatu beharko dute. /2004-01-23

PRESOAK

### Sasiainek gose greba hasi zuen espetxez aldatu zutelako

Antxon Sasiain preso bergararrak 20 eguneko gose greba egin zuen Parisko Osny espetxetik Normandiako Val de Reui espetxera eraman zutelako. Sasiainen egoera salatzeko protestak egin zituzten herrian eta Udalak bere eskubideen aldeko mozioa onartu zuen. /2004-01-30

ZUHURKI S.L.
Aholkularitza fiskala eta kontablea
URTE BERRI ON!
Zorionak eta urte berri on!
Bidekurutzeta 46-behea, esku. • Tel.: 943 763 353 • 20.570 BERGARA (Gipuzkoa)

COAR
Sukaldeak. Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak. Arozlanak.
Bergara = 943 76 58 86 / 670 765 886
Urte berri on!!

# OTSAILA



*"Herri prentsan esparru berria jorra dezake 'Asteleheneko Goienkaria'-k"*

**J. M. LARRAÑAGA** / HEZKUNTZA SAILA

2004-02-20



*"Nire adina kontuan hartuta, Realean amaituko dudala esan dezaket"*

**AGUSTIN ARANTZABAL** / FUTBOLARIA

2004-02-13

## HILEKO ESALDIA

**"Antzerkian erraza da kapitulu bat itxi eta ondorengoa hastea; bizitzan, aldiz, oso zaila da hori"**

**MIREIA GABILONDO** / AKTOREA

2004-02-15

## HILEKO DATUA

# 24

**LAGUN JARDUNEKO BERTSO ESKOLAN**

Jarduneko *Potoplost* bertso eskolak bigarren ikasturtea bete du. 24 lagun ibili dira Enaitz Alustiza irakaslearekin. /2002-02-27



### Modesto Arrieta zarauztarrak Amodiozko Gutunen Lehiaketa irabazi

Modesto Arrieta 54 urteko zarauztarrak irabazi zuen Amodiozko Gutunen XII. Berrigara Lehiaketa. Aurreko urtean bezala, Uxue Alberdi elgoibartarrak eraman zuen bigarren saria eta herriko onena, berriz, Elena Laka izan genuen. Gazteen saria Zigor Agirrek eskuratu zuen. Guztira, 111 gutun jaso ziren. Ohikoa den bezala sari banaketa San Valentin egunean izan zen. /2004-02-13

**MIGUEL ALTUNA, NABARMENDUTA**

Miguel Altuna ikastetxeak aipamen berezia jaso zuen kalitatearen inguruko Europako Astean. /2004-02-27

**GARABI ZERBITZUAREN HASIERA, ATZERATUTA**

Garabi zerbitzua urtarrilaren amaieran martxan jarriko zutela adierazi arren, berriro atzeratu zuten. /2004-02-6

## AIPAGARRI



**MIREN URTZELAI**
**Ikaslea**

Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko lehen etapari begira deitu zuten logotipo lehiaketa Miren Urtzelai gaztetxoak irabazi zuen. 200 lan jaso ziren. /2004-02-13



**LUIS ALBERDI**
**Langilea**

Luis Alberdi Osintxuko auzo alkate izendatu zuten. Osintxuarrek batzar batean adostu zuten lau urterako Alberdi izatea auzoko ordezkaria. /2004-02-6



**SILVIA EZPELETA**
**Irakaslea**

Silvia Ezpeletak ETB-2ko *Date el bote* saioan hartu zuen parte. 340 euro inguru irabazi zituen eta gustura aritu zen Carlos Soberaren saioan. /2004-02-20

ROTULOS ZABALETA
Mota guztietako errotuloak
Zorionak eta Urte berri on
Telf. 943 76 57 34 Faxa 943 76 58 53 Mobila 689 54 81 83 BERGARA
r-zabaleta@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK
Artzamendi, S.A.
Gabon zoriontsuak herritar guztioi!
Burdiñate plaza 6-behea
Tel.: 943 76 27 58 - 943 76 01 53
Faxa: 943 76 01 53
20570 BERGARA

## ALBISTEIZANZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### 'Asteleheneko Goienkaria', kalean

Otsailaren 16an argitaratu zen lehen zenbakia. Orduz gero, astero-astero izan dugu asteburuan ibarrean gertatutakoaren berri.

2004-02-16

▸ EUSKAL HERRIAN

### Lesbiana bikote bat, Estatuan aurrekari

Lesbiana nafar bati bere bikotekidearen alabak adoptatzeko eskubidea aitortu zioten. Hura errekonozitzen zaion Estatuko lehen lesbiana bikotea izan zen.

2004-02-16

▸ MUNDUAN

### Giza klonazioa, azkenean errealitate

Giza enbrioiak klonatzea lortu zuten Hego Koreako zientzialari batzuek. Osasun ikerkuntzarako erabiltzeko eskubidea eskatu zuten.

2004-02-12

## JAIAK



### Euriak eta elurrak Aratusteetako giroa hoztu zuten

Euria, elurra eta hotza izan genituen aurtengo Aratusteetan. Zapatuan ez zen jende askorik mozorrotuta irten kalera eta martitzenean ere giro zakarrari egin behar izan zioten aurre ausartenek. Hutsik egiten ez duen zenbait jende ibili zen giroa alaitu nahirik. Ohikoa denez, sardina-ehorzketarekin bukatu ziren Aratusteetako ospakizunak. /2004-02-27

EUSKARA

### Justiziaren euskalduntzea aldarrikatuz

Euskal Herrian Euskaraz taldeak deituta, justiziaren euskalduntzea aldarrikatzeko manifestazioa izan zen otsailaren 28an, Bergaran. EHEk prentsa aurrean salatu zuenez, Bergarako epaitegiaren kasuan euskarak bizi duen egoerak ez du hobera egin azken urteotan. /2002-02-27

KIROLA

### Ariznoako gimnastak taldeak zein banaka nagusi Arrasaten

Ariznoako gimnastak nagusi izan ziren Arrasateko Uarkape pilotalekuan jokatutako Gipuzkoako Txapelketako bigarren fasean. Taldeka, alebin, infantil eta gazte mailetan irabazi zuen Ariznoak. Banakako ariketetan ere emaitzak bikainak lortu zituzten herriko gimnastek. /2004-02-6

KULTURA

### 'Divinas' antzezlana estreinatu zuen Oihularik Bergaran

Oihulari Klown taldeak *Divinas* antzezlana estreinatu zuen otsailaren 27an, Zabalotegiko aretoan. Oihularikoek Ama Birjina, Maria Magdalena eta Jesukristo terapian jartzen dituzte lan honetan. Laura Lopez, Virginia Imaz eta Txefo Rodriguez dira aktore protagonistak. /2004-02-20

ZAHARRAK

### Informatika ikastaroak erretiratuendako

Erretiratuen egoitzako informatika gela 2000ko maiatzean jarri zuten abian. Ordutik hona makina bat ikastaro antolatu dituzte. Joan den otsailean, lehen hiruhilabeteko ikastaroak hasi ziren, erantzun bikainarekin, gainera. Jokin Espinosak eman zuen ikastaroa. /2004-02-13



Internet ikastaroan hamar lagunek eman zuten izena.

POLITIKA

### Espainiaren erasoen kontrako sinadura bilketa

Batasunak deituta, Espainiako Estatuaren inposizioaren aurkako sinadura bilketa egin zuten otsailaren 14an eta 15ean. Espainiako Estatuaren kontra 25.000 salaketa batzea zen helburua, salaketa guztiak Genevako Nazio Batuen goi batzordera eramateko . /2004-02-13

ibili
1942az gero
San Juan auzoa
BERGARA
943 76 35 44 Faxa: 943 76 51 39
Zorionak bergararroi!



GABON ZORIONTSUAK
BERGARAR GUZTIOI!
metagra
Amillaga 22 P. K. 79
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 13 48
Faxa: 943 76 50 34
e-maila: mse@metagra.com • www.metagra.com

# MARTXOA



*"Iragarkietan gizartearen akatsak normaltzat hartzen dituzte askotan"*

**MAITE ARISTEGI**/ BASERRITARRA

2002-03-5



*"Espresio forma diferenteak fusionatuz publiko zabal batengana heldu nahi dugu"*

**MAITE OTAOLA** / DANTZARIA

2004-03-5

## HILEKO ESALDIA

**"Euskal Herrian dantzaren munduan arrakasta lortzea oso zaila da. Beti daude traba pila bat"**

**EDU MURUAMENDIARAZ** / DANTZARIA

2004-03-2

## HILEKO DATUA

**27**

**LAGUN ETXEKO ARDURAK TRUKATZEKO IKASTAROAN**

Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatutako ikastaroan 27 lagunek hartu zuten parte, 12 gizonek eta 15 emakumek. /2004-03-26



## EAJ garaile M-14ko hauteskundeetan

EAJ alderdiak jaso zituen boto gehien martxoaren 14an, Bergaran, Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan. Jeltzaleek 3.228 boto lortu zituzten. Berez baliorik gabeko botoa izan arren, Bergarako Ekimena izan zen bigarren indarra (1.411 boto), PSE-EE (1.223) eta Aralar-Zutik koalizioaren (1.105 boto) aurretik, hain zuzen ere. PP alderdiak 639 boto izan zituen eta Ezker Batuak, berriz, 611.

Partaidetza handia izan zen: orain dela lau urteko hauteskundeetan abstentzioa %51 izan zen eta joan den martxoaren 14an, berriz, %26,8.

Goizean goizetik herritar mordoa joan zen botoa ematera. Eguerdian, Angel Berruetaren hilketa salatzeko elkarretaratzea egin zuten 40 lagun inguruk, San Martin plazan /2004-03-18

### EHE TALDEA JUSTIZIA EUSKALDUNTZEAREN ALDE

EHE taldeak justizian euskararen presentzia aldarrikatzeko elkarretaratzea egin zuen epaitegian. /2002-03-26

### URTEAGA KALEKO LANAK

Urteagan zirkulazioa eten zuten azaroan. Auzotarrek eta inguruko enpresek haserrea azaldu zuten. /2004-03-26

## AIPAGARRI



**JUAN ITURRALDE**
**Erretiratua**

Juan Iturralde San Joxepe elkarteko presidente izendatu zuten, Tomasa Zabaleta zenaren ordez. San Joxepek 1.700 bazkide inguru ditu. /2004-03-21



**MARIA URTZELAI**
**Aktorea**

Enriqueta Vegak eta Maria Urtzelai bergararrak *El feeling es asi* antzezlana eskaini zuten Zabalotegin. Ikusleek harrera beroa eskaini zieten. /2004-03-26



**IKER AZAGIRRE**
**Pilotaria**

Elgetako Ozkarbi pilota elkartean diharduen Iker Azagirrek Euskal Ligako finala irabazi zuen. Finalean 22-16ko emaitzarekin nagusitu zen. /2004-03-5

INDUSTRIAS ZANGUITU

ISO 9001
DNV
CERTIFICATED FIRM

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

*Torlojugintza*
*Espezialitatea: era guztietako azkoinak*

Tel.: 943 76 18 05 / Faxa: 943 76 27 43 / 20570 Osintxu-Bergara / industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es

*ALTUBE tailerrak SM*

BVQI ISO 9001
UKAS QUALITY MANAGEMENT

ESTANPAZIORAKO PIEZAK ETA
TRESNAK MEKANIZATZEA ETA ARTEZTEA

*San Lorenzo poligonoa - Urarte 22*
*94 posta-kutxa - BERGARA*

URTE BERRI ON!

*Tel.: 943 76 22 74*
*Faxa: 943 76 04 99*

## ALBISTEIZANZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Elkarrik 3.245 sinadura batu zituen

Aurreikuspen guztiak gainditu zituzten elkarrizketa foroaren aldeko sinadura bilketan. Ibarrekoekin batera, Euskal Herri osoan 32.000 izan ziren guztira.
2004-03-07

▸ EUSKAL HERRIAN

### Etxerat-eko kide bat tiroz hil zuten

Etxerat taldeko Angel Berroeta kidea tiroz hil zuen Espainiako polizia batek Iruñean, hilaren 11ko atentatuen gaineko eztabaida baten ondoren.
2004-03-12

▸ MUNDUAN

### Sarraskia Madrilen: ia 200 hildako, bonbaz

191 lagun hil eta 1.500 zauritu zituen bonba atentatu batek Madrilen. Ustez, Islamiar estremistek egin zuten. PPk, berriz, hauteskundeak galdu zituen.
2004-03-11

## ASTEKO BERRIAK



### Bi milioi euroko laguntzaren zain

Bergarako Udalak bi milioi euroko dirulaguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, 2004-2008 epe bitartean herrian egingo diren bost proiekturen finantzaketan laguntzeko. Aipatutako bost proiektuen aurrekontua 9,5 milioi euro da.

Hain zuzen ere, Agorrosingo kirolegunea, Zubiaurre eta Martoko kaleen urbanizazioa, Artekalea, Arrurriaga eta Domingo Irala kaleen berrurbanizazioa, Arostegiko egokitzapena eta Santa Ana ermitaren urbanizazioa egiteko eskatu zuen Udalak dirulaguntza. Izartu programaren bitartez, gainbehera etorritako hirialdeak berpizteko egitarauei laguntza ematea da Jaurlaritzaren asmoa. /2004-03-26

PRESOAK

### Presoen eskubideen aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak

Aralarrek presoen eskubideen aldeko ez-arauzko proposamena aurkeztu zuen eta EAJ-EA koalizioak mozioarekin bat egin zuen. Presoen Euskal Herriratzea aldarrikatzen du testuak. PSE-EEk ezezkoa eman zuen eta PP eta EBko zinegotziak ez ziren osoko bilkuran egon. /2002-03-5

HEZKUNTZA

### Miguel Altuna, Bilboko Lanbide Heziketaren azokan

Miguel Altuna institutuak Lanbide Heziketaren gaineko azoka hartu zuen parte. Ikastetxean sortu eta egindako lau produktu erakutsi zituen Miguel Altunak Bilboko Erakustazokan. Miguel Altuna Debagoieneko ikastetxe bakarra izan zen Lanbide Heziketaren azokan. /2004-03-26

PERTSONAIAK

### Serafin Esnaola plaza inauguratu zuten Pasaian

Serafin Esnaola zenaren izena jarri zioten plaza bati Pasaian, Trintxerpeko distrituan. Izenaren proposamena Arraindegi kaleko bizilagun elkarteak eta Pasaiako Udaleko EAJko zinegotziek egin zuten. Serafin Esnaola urtetan egon zen apaiz Bergaran, San Antonion. /2004-03-26

KULTURA

## Emakumeen aldeko elkarretaratzea plazan

Bergarako Emakume Kultur Elkarteak deituta, 20 bat herritarrek elkarretaratzea egin zuten martxoaren 8an, eguerdian, San Martin plazan. Hain zuzen ere, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko egin zuten elkarretaratzea. Hogei bat minutuz egon ziren udaletxe aurrean, *Berdintasunean sinisten dugu. Eta zuk?* zioen pankarta erakutsiz.

Era berean, azken urteotako ohiturari eutsiz, Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatutako merienda izan zen martxoaren 8an Artatse elkartean. 60 lagun inguru elkartu ziren. /2004-03-12



Elkarretaratzearen irudi bat.

OSASUNA

### Arreta psikologikoa bultzatzeko modulua Mizpirualden

Mizpirualde zaharren egoitzak modulu psikogeriatrikoa abian jarriko zutela eman zuen aditzera. Egoiliarrek behar duten arreta psikologikoa bultzatzea zen aipatutako moduluaren helburua. Mendekotasuna zuten 20 laguni arreta berezia eskainiko lieke aipatutako moduluak . /2004-03-12

Bideluze
ARROPA GARBITEGIA
AMILLAGA 26 POSTA KUTXA 82 BERGARA
TEL.: 943 764 943 FAXA: 943 769 708

Laneko arropa
Mantelak
Mantak
Edredoiak
Alfonbrak
Moketak
Gortinak

Arropa konpontzen dugu

Bordatuak egiten ditugu

Gabon zoriontsuak denoi!

ALURA, S.L.


ZORIONAK DENOI!

MEKANIZAZIORAKO ALTZAIRUA
ALTZAIRU HERDOILGAITZA
TORLOJU HERDOILGAITZA
ESTANPAZIORAKO ALTZAIRU HERDOILGAITZA
SOLDADURA HERDOILGAITZA
ALUMINIOA

HAITZ ITURRI 6 (P. K. 267)
20570 BERGARA
Gipuzkoa

Tel. 943 76 02 50
Faxa. 943 76 03 15
e-maila: alura@logiccontrol.es

# APIRILA



*"Jendeak diskoa entzutea eta ahal den toki guztietan zuzenean jotzea nahi dugu"*

**ITZIAR ITURBE**/ COOL PANIC

2004-04-7



*"Arostegiko atea berreskuratzeko zirujauen antzeko lana egingo dugu"*

**JON BERASAIN** / ZAHARBERRITZAILEA

2004-04-30

## HILEKOESALDIA

**"Ardura karguak onartzen ez baditugu, ez ditugu etorkizuneko belaunaldiendako ateak irekiko"**

**CARMEN GALLASTEGI** / IRAKASLEA

2004-04-18

## HILEKODATUA

# 18

**BIKOTE LEHIAN BERGARA HIRIA TXAPELKETAN**

Hemezortzi bikote izan ziren lehian Bergara Hiria pilota txapelketan, nagusien mailan zein 22 urtetik azpikoetan. /2002-04-23



### Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia Bergaran hasi zen

Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko lehen etapa Bergaran hasi eta bukatu zen apirilaren 5ean. Txirrindularien etorrerak sekulako ikusmina piztu zuen herritarren artean. Inguruko herrietatik ere jendetza ikaragarria etorri zen txirrindulari tropela gertutik ikustera. Alejandro Valverde Kelmeko txirrindularia izan zen garaile Bergaran. Antolakuntza bikaina izan zen. /2004-04-7

**COOL PANIC TALDEAREN BIGARREN DISKOA**

Cool Panic musika taldeak *Soul on fire* izenburuko diskoa kaleratu zuen. 1.000 ale kaleratu zituzten. /2004-04-7

**AZPIKONTRATATUTAKO LANGILEEN EGOERA**

Mizpirualden azpikontratatutako langileek protestaldiak egin zituzten euren egoera salatzeko. /2004-04-30

## AIPAGARRI



**ANE BERASATEGI**
**Mendizalea**

Galtzagorri elkartearen *Haur posia aretoa* erakusketa ikusgai izan zen kultura etxean. Ane Berasategik zuzendu zituen gaztetxoendako bisita gidatuak. /2004-04-30



**MARI PAZ ALUSTIZA**
**Margolaria**

Mari Paz Alustizak irabazi zuen Pazkoetako jaiei begira Udalak antolatutako kartel lehiaketa. 22 lan aurkeztu ziren. Alustizak 600 euro irabazi zituen. /2004-04-30



**ARITZ BIKUÑA**
**Kirolzalea**

Aritz Bikuñak selekzioen arteko Espainiako boccia txapelketan hartu zuen parte, Euskadirekin. Taldeka txapeldun izan ziren Euskadikoak. /2004-04-7

EAJ
PNV

Gabon zoriontsuak eta urte berri on guztioi

BULEGOA Tel. eta faxa: 943 76 47 00
TABERNA Tel. 943 76 49 33
San Pedro 4, BERGARA

DESA CRISTAL

- Ibilgailuendako kristalak
- Kamioiak • furgonetak • automobilak • autobusak
- Era guztietako kristalen muntaia
- Baimendutako Solar-Check laminen instalazioa



TAILERRA ETA BULEGOAK: Santalaitz 4-5. pabilioia.
83 posta-kutxa
Tel.: 943 76 36 09 • Faxa: 943 76 73 45
20570 BERGARA

TAILERRA: Ibaiondo bailara 17-8. pabilioia.
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47
20271 IRURA





•Gosariak
•Bokatak
•Egunkariak
•Bertako opilak
•Kafetegia
•Terraza

EGUNERO GOIZEKO 06:30ETATIK ZABALIK

URTE BERRI ON!

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

**Obradorea:**
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

## OGI KLASEAK



# KONDE PANADEROKUA

### BETIKOAK

**Zoladun labe errefraktarioan erretakoak:**

- Baserriko ogiak
- Sobatuak/Espainolak
- Sopakoak
- Opilak

### OGI BERRIAK

- Txapatak
- Baguetteak
- Erromanitoak
- Erdi-erreak

### OGI BEREZIAK

- Zekale-ogia edo integrala
- Laxantea
  (belarrekin egindakoa)
- Alemana
  (bost gari motarekin egindakoa)
- Sojazkoa
- Artozkoa
- Intxaurrez eta mahaspasez egindakoa
- Moldeko ogia:
  integrala, egunerokoa eta naturala



Toki eder plaza 3 • 943 76 14 87



Burdiñate 1 • 943 76 02 57

**Ondo hasi urte berria**

# Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia









Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020

K-21

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



## ALBISTEIZANZEN

▶ DEBAGOIENEAN

### Zortzi gudariren gorpuak Elgetan

Gerran fusilatutako zortzi gudariren gorpuak aurkitu zituen Arantzadik Elgetan. Batailoi abertzaleen aztarnak ere topatu zituzten bertan.

2004-04-18

▶ EUSKAL HERRIAN

### ETAren inguruko erakusketa polemikoa

ETAren historiaren gaineko erakusketa prestatu zuen Xabier Zumalde kide historikoak. Hainbat aurkako iritzi jaso, eta Ertzaintzak itxi egin zion.

2004-04-23

▶ MUNDUAN

### Irakeko kartzelako torturak agerian

Irakeko Abu Ghraib presondegiko zaindari estatubatuarrek torturak egin zituztela agerian geratu zen, hainbat argazki eta grabaketaren bidez.

2004-04-30

## ARTEA



### Arostegiko ate errenazentista zaharberritzera eraman zuten

Arostegi jauregiko ate errenazentista apirilean zaharberritzera eraman zuten, Donostiara.
Hain zuzen ere, apirilaren 22an kendu zuten atea jauregiko sarreratik.
Udalak Donostiako Albayalde enpresari adjudikatu zion atea berritzeko lana, 28.700 euro inguruko aurrekontuarekin.
Arostegiko atea 1530. urtearen ingurukoa da; balio handiko artelana, adituen esanetan.
/2004-04-30

LANA

### Mizpirualdeko Lendingeko langileen protestak izan ziren

Mizpirualde egoitzan Lending Service SL enpresak kontratatutako langileek hitzarmen duin baten aldeko elkarretaratzeak egin zituzten. Lendingen bitartez 54 langilek ziharduten Mizpirualden. Egoitzako gainerako langileekin baldintzak parekatzea eskatzen zuten. /2004-04-30

ERREPIDEAK

### Urteagako lanak Diputazioak hartu zituen bere gain

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatuak Urteagako lanak Diputazioak bere gain hartuko zituela adierazi zuen Bergaran, apirilaren 26an. Gonzalez de Txabarri Foru Ogasuneko egoitza berriaren inauguraziora etorri zen, errenta aitorpena kanpainari hasiera emanez. /2004-04-30

KIROLA

### Ibai Linazisoro irabazle Mayencos eski txapelketan

Ibai Linazisoro gaztetxoak lehen postua eskuratu zuen Jacako Mayencos taldeak antolatutako txapelketan, alebin mailan. Eski denboraldi bikaina egin zuen Ibai Linazisorok. Astunen jokatutako I. Tole Pantoja txapelketan ere nagusitu zen eskiatzaile bergararra. /2004-04-30

KIROLA

### Joxu Arana eta Asier Garcia, Itsaso Hileko Maratoian

Joxu Arana eta Asier Garciak Itsaso Hileko Maratoian hartu zuten parte, Jordanian. Aranak ultramaratoian (50 km) jardun zuen eta Garciak, berriz, maratoi erdian. Aste Santuko oporretan bidaiatzeaz gain, kirola egiteko ere aprobetxatu zuten bi kirolariek. /2004-04-23



Aranak eta Garciak bikain jardun zuten Jordaniako proban.

POLITIKA

### Bergara Aurrerak ordezkaritza aldarrikatu zuen

Azken udal hauteskundeetan udalbatzatik kanpo geratu izana salatzeko idatzia aurkeztu zuen Bergara Aurrera taldeak. Plataformari dagokion ordezkaritza politikoa aitortzea eskatzen zuen Bergara Aurrerak. 368 herritarren eta 22 talderen atxikimendua jaso zuten. /2004-04-23

KI
Kalebarren instalazioak SM
GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI!
- Proiektuak
- Instalazioak eta mantenimendua
- Gasa
- Berogailua
- Aire girotua
- Iturgintza lanak
Bidekurutzeta 31 behea
Tel.: 943 76 11 67 BERGARA
E-mail.: kalebarren@inicia.es
Tel.: 943 75 23 07 SORALUZE
944 75 99 60 DEUSTO
Aurrekotuak konpromesorik gabe

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Urte berri on!
Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • Faxa: 943 76 32 52 • BERGARA

# MAIATZA



*“Hasieratik haurrek gurasoen babesa sentitzea oso garrantzitsua da”*

**NEREA MENDIZABAL**/PSIKOPEDAGOGOA

2004-05-14



*“Oraindik indar handia du jaunartzeak; bataiatutakoen %90ek egiten dute”*

**EULALI ELGARRESTA** / KATEKISTA

2004-05-14

## HILEKOESALDIA

**“Gurasoengandik askatzean, gazteek gurekin ere apurtzen dute. Bizitzaren zikloa...”**

**XABIER SALDIAS** / EGAN TALDEKOA

2004-05-28

## HILEKODATUA

# 12

**MUTIKO LOKATZA TXIRRINDULARI ESKOLAN**

Lokatza Txirrindulari Eskolan 12 mutiko ibili dira aurten, infantil, kadete eta gazte mailetako hiru taldeetan. /2004-05-7



### Katearen 25. urteurrenean, lantegiaren bultzatzaileei omenaldia

Bergarako Katea lantegiaren 25. urteurrena zela-eta, 1979an tailerra aurrera ateratzako lanetan jardun zuten Alkartu-Naiko kideak omendu zituzten maiatzaren 14an. Orain dela 25 urte 12 langile ziren Seminarioko tailerrean. Orain, berriz, 90 lagun dira lanean San Juanen. Gutxitu fisikoen kolektiboari lanean hasteko aukera ematea da Katearen helburuetako bat. /2004-05-21

**ARIZNOA TALDEKO GIMNASTAK**

Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldeko gimnastek emaitza bikainak lortu zituzten Gipuzkoako Txapelketan./2004-05-14

**LENDING ENPRESA**

Mizpirualden azpikontratatutako langileek protestaldiekin eta akordioaren zain jarraitzen zuten. /2004-05-7

## AIPAGARRI



**FELIX AYALA**
**Margolaria**

Bigarren urtez jarraian Zezen Zaleak taldeak deitutako Abdon Juaristi margo lehiaketa irabazi zuen Ayalak. 1.000 euro eta plaka eskuratu zituen. /2004-05-21



**XABIER OREGI**
**Preso ohia**

Xabier Oregi *Panti* bergarar presoa aske utzi zuten maiatzaren 8an. *Panti*-k 22 urte eman zituen herritik kanpo, azken 17 urteak kartzelan. /2004-05-7



**ANDER ALVAREZ**
**Toreatzailea**

Ander Alvarez bergararra ordezkoa izan zen Pazkoetako zezenketan, maiatzaren 30ean. Azkenean, ez zuen toreatzerik izan bere zaleen aurrean. /2004-05-28

INDUSTRIAS BEGU S.A.

GRUPO RECYDE

AENOR
Empresa Erregistratua
0626/1999
ISO 9001/2000

Doitasun-dekoletajea

Tel.: 943 76 21 93 - 943 76 72 72 Faxa: 943 76 04 24 • OSINTXU BERGARA
• E-mail: begu@gruporecyde.com

Ondo pasau gabonetan!

BELMEK
DOITASUNEZKO MEKANIZATUAK

DQ certificación
E.R. 02/591
ISO 9001/00
ENAC-ek bermatua

Telleria 19, B-5
BERGARA

Tel.: 943 76 94 60
Faxa: 943 76 92 81
belmek@belmek.com
www.belmek.com

Urte berri on guztioi!



## ALBISTEIZANZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Gipuzkoako Batzar Nagusiak Arrasaten

Orain dela 25 urte berrezarri ziren Arrasaten Gipuzkoako Batzar Nagusiak, eta hori ospatzeko bildu ziren berriz ere herri horretan batzarkideak.

2004-05-23

▸ EUSKAL HERRIAN

### Eraikuntzako greba luzeena hasi zen

Eraikuntza sektoreak greba hasi zuen. Ekainaren 15 arte ez zuten akordiorik lortu Adegirekin. Hainbat lan baldintza hobetzea eskatzen zuten.

2004-05-10

▸ MUNDUAN

### 16 hildako Arabian, Al-Kaedaren eraso baten

Arabiako petrolio planta bat eraso zuten islamiar terroristek. 16 lagun hil zituzten eta 50 bahituta eduki zituzten arabiar poliziek erreskatea egin arte.

2004-05-29

## LANA



### Garai bateko ehungintza enpresa indartsuak, krisian Bergaran

Garai batean Bergaran sektore indartsua zen ehungintzak ez du momentu onik bizi. Urteko lehen hilabeteetan ibilbide luzea izan zuten Textil Narbaiza eta Movilla lantegiak itxi zituzten. 94 langile izan ziren kaltetuak. 1970eko hamarkadan hamabost lantegi inguruk ziharduten ehungintzan, Bergaran. Sektorea gure herrian 2.000 langile izatera iritsi zen. /2004-05-7

OSASUNA

### Agifes: gaixotasun psikikoak jasaten dituztenen alde lanean

Debagoieneko Agifes elkarteak buruko osasunaren gaineko sentsibilizazio kanpaina abian jarri zuen. Gaixo psikikoen eta haien familiartekoen elkarteak urtarrilean zabaldu zuten Debagoieneko bulegoa, Bergarako Irizar jauregian. Elkartearen telefonoa hau da: 943 76 98 56. /2004-05-14

ZAHARRAK BERRI

### Aurten 87 urte bete dituzte bergararrak omendu zituzten

Aurten 87 urte egin dituzten bergararrak omendu zituzten maiatzaren 23an, erretiratuen egoitzan. Guztira, 42 lagun omendu zituzten egun horretan. Ohikoa denez, omendutakoez gain, Bergarako Udaleko eta San Joxepe elkarteko zuzendaritzakoak izan ziren omenaldian. /2004-05-14

TXIRRINDULARITZA

### Unai Arantzabalek Santa Kruz proba irabazi zuen

Lokatza-Sumofic taldeko Unai Arantzabal txirrindulariak Seguran jokatutako Santa Kruz proba irabazi zuen, maiatzaren 2an. Arantzabalek bi ordu, 27 minutu eta 43 segundo behar izan zituen 86,6 kilometroko ibilbidea egiteko eta esprintean bi laguni irabazi zien. /2004-05-7

HEZKUNTZA

### Atzegi eguna ospatu zuten Bergaran, maiatzaren 15ean

Atzegi elkarteak deituta, bailarako 80 bat gutxitu psikikok eta haien senideek Atzegi Eguna ospatu zuten. Guztira, 150 lagun inguruk hartu zuten parte maiatzaren 14ko ospakizunetan. Gipuzkoan adimen urritasuna duten pertsonen familek sortu zuten Atzegi, 1960an. /2004-05-14

KULTURA

### Nazioarteko txotxongiloak Bergaran bisitari izan genituen

Txina, Italia, Argentina, Katalunia, Andaluzia, Alemania eta beste hainbat herritako txotxongilo ikuskizunak izan genituen maiatzaren 20tik 23ra bitartean. Helduentzako Txotxongilo Mostraren VII. ekitaldia ospatu zen aurten. Aurreko urteotan bezala, ikusleek primerako erantzuna eman zioten Mostrari. Chapertons talde katalanaren *Boom*, Pizzicato italiarren *A todo trapo* edota Claudio Cinelliren *Heartbet* izan ziren ikuskizun onenetakoak. Era berean, jaialdiak iraun zuen bitartean, Jesus Atienzaren argazkiak ikusgai egon ziren Pol-Polen. /2004-05-14

KULTURA

### Mikel Araiztegiren koadroa saritu zuten dendariek

Bedelkar herriko dendarien elkarteak denda txikien inguruan antolatutako margo lehiaketan Mikel Araiztegi margolaria izan zen irabazlea. Araiztegik 1.000 euroko saria jaso zuen eta Antton Arrillagari 300 euroko akzesita eman zion epaimahaiak. 20 lan jaso ziren. /2004-05-7

BANAKETAK
ORIXONDO

Tel.: 943 76 28 81
BERGARA

***Espezialitateak:***

- *Urdaiazpiko iberikoak*
- *Paletak*
- *Kordobako urdaiazpikoak*
- *Solomoak*
- *Aditiborik gabeko txorizoa (Alejandro)*
- *Errioxako urdaiazpikoak (Los claveles)*
- *Erriberako esparragoak*
- *Pikillo piperrak*
- *Guardiako Luis Alegre ardoak*

**Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!**

Eraikuntza • Altzariak

MADERAS IPIÑARRI, S.L.

- **INSIGNIS pinua zerratu eta lantzen dugu sektore hauendako: altzariak, eraikuntza, aroztegia eta enbalajeak.**
- **ALERTZEA, DOUGLAS IZEIA, HARITZA eta beste batzuk ondorengo sektoreendako: birgaitzeak, eraikuntza eta aroztegia.**

Aroztegia • Enbalajeak
www.euskalnet.net/ipinarri

Ibarra z/g • 184 posta-kutxa
20570 BERGARA

Tel./Faxa: 943 76 15 93
ipinarri@euskalnet.net

# EKAINA



*"Gizarte liberala da gurea eta pisu handiena emakumeen eskuetan dago"*

**FATMA GALIA/** SAHARARRA

2004-06-18



*"Espainiako txapelketan dena ondo atera zitzaidan; irabaztea izugarria izan da"*

**FERNANDO MARKINA/**ARKU TIRATZAILEA

2004-06-25

## HILEKOESALDIA

**"Gaur egun etxeko andreak edota bigarren karrera egin nahi duen jendea daukagu UNEDen"**

**BIZENTE HUIZI /** IDAZKARIA

2004-06-16

## HILEKODATUA

# 1.200

**ERABILTZAILE IRIZAR JAUREGIKO KZ GUNEAN**

Irizar Jauregiko KZ Guneak 1.200 erabiltzaile inguru ditu. KZ Gunea 2002ko azaroan zabaldu zuten. /2004-06-25



### 'Bergara dantzara!' erromeriak dantzari ugari batu zituen

Bergarako dantzara egun osoko erromeria erraldoia ospatu zen Bergaran ekainaren 12an. Abarka dantza taldeak Xamatzen laguntzarekin antolatutako ekimen honek dantzari ugari batu zituen. Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat talde etorri ziren eta musikariek eta herritarrek ere lagundu zuten giroa pizten. 2005eko Pazkoen aurretiko astean jaia errepikatzeko asmoa dago. /2004-06-11

**MIZPIRUALDEN AZPIKONTRATATUTAKOAK**

↑ Mizpirualden azpikontratatutako langileek Lending SL-rekin hitzarmena sinatu zuten ekainaren 18an. /2004-06-25

**JAIETAN GIROAK BEHERA EGIN ZUEN**

↓ Pazkoetan giroak behera egin zuen eta ohi baino jende gutxiago ibili zen. /2004-06-4

## AIPAGARRI



**JUANJO ALTUNA**
**Margolaria**

*Espacios en construccion* lanarekin Juanjo Altuna margolariak Tutera Hiria lehiaketa irabazi zuen. 1.200 euroko saria jaso zuen Altunak. /2004-06-4



**UNAI ARANTZABAL**
**Txirrindularia**

Unai Arantzabalek gazte mailako Gipuzkoako erlojupeko txapelketa irabazi zuen ekainaren 1ean, Alegian. 23 segundo atera zizkion bigarrenari. /2004-06-4



**ROBERTO IZAGIRRE**
**Langilea**

*Aspaldikoak* izenburuko lanarekin lehen saria eskuratu zuen Izagirrek Debagune euskara elkargoak antolatutako ipuin barregarrien lehiaketan. /2004-06-18

ZubeR ®

BVQi ISO 9001 UKAS QUALITY MANAGEMENT

**Zuber**
• Metal gogorrezko erramintak ZB®
• Hotzeko estanpazioareko metal gogorrezko matrizea®

Tel.: + 34 943 76 26 78
Faxa: + 34 943 76 56 79
www.adegi.es/zuber

Leizeaga kalea 8
112 posta-kutxa
BERGARA

*Urte berri on bergararroi!*

AiTEC, S.L.

Gabon zoriontsuak!

ESTALDUREN KALITATE - KONTROLA

• LABORATEGI INDUSTRIALEN EKIPAMENDUA

Harruriaga 12 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 08 09 • Faxa: 943 76 43 19 • E-maila: asintec@airtel.net

# BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia. Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

# ELKAR
## ELEKTRAGINTZA

ZURE ZERBITZURA!!

Mota guztietako instalazioak




943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA


CHAMPAGNE
JEEPER
Txin-tx
ein deig!
URTE BERRI ON DI!



Irish pub Galway

Iraho

Euxebio II

Sirimiri

Usoa

Irrintzi

Zumbeltz

Mitor garagardotegia

Jam aretoa

Ariznoa

Oilagorra

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Zorionak eta urte berri on!

Zorionak eta urte berri on guztioi!




ANDVZV
ANDUZU S.L.
Simon Arrieta 1, 4-C
BERGARA
Mobila: 607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa
Era guztietako kargak

## ALBISTEIZANZEN

DEBAGOIENEAN

### AP-1 autobidearen Arabako lehen harria

Arabako zatiaren lehen harria ipini zuten maiatzean. Arlaban eta Luku lotzen ditu zati horrek eta eraikuntzak hainbat debagoiendar kaltetuko ditu.
2004-06-12

EUSKAL HERRIAN

### Iban Mayok, Dauphine Libere proba irabazi

Iban Mayo txirrindulariak Dauphine Libere proba garrantzitsuaren 56. aldia irabazi zuen. Lance Armstrongi sailkapen nagusian gailendu zitzaion. [sic: ronoigoeran]
2004-06-13

MUNDUAN

### Indiferentzia nagusi europar bozketan

Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan, abstentzioa izan zen nagusi. Gurean, Herritarren Zerrenda alderdiak ezin izan zuen parte hartu.
2004-06-13

## KIROLAK



### Erroizenea eta Argote txapeldun

Erroizenea-Argote bikoteak irabazi zuen Bergara Hiripilota txapelketa. Finalean 22-14 irabazi zieten Huiziri eta Gutierrezi. Partidu gogorra eta luzea izan zen finalekoa. 80 pilotakadatik gorako tanto bat baino gehiago jokatu zuten finalistek. Pare-parean ibili ziren bi bikoteak. Markagailuan 14na jarri zirenetik aurrera, baina, Huiziri eta Gutierrezi nekeak ez zien laga aurrera egiten, eta hantxe hautsi zen partidua. Igor Gutierrez bergararrak ez zuen txapela janzterik izan. Dena dela berak eta Huizi usurbildarrak ere maila bikaina erakutsi zuten. 22 urtetik azpikoetan Etxeberria eta Iza izan ziren irabazleak, Olazabal-Betelu bikoteari nagusitu ondoren.

POLITIKA

### EAJ garaile eta HZ indartsu Bergaran, E-13ko hauteskundeetan

Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan EAJ alderdiak jaso zituen boto gehien Bergaran: 1.835 boto, hain zuzen ere. Bigarren indarra HZ izan zen, 1.237 boto jasota. Hala ere, abstentzioa sekula baino handigoa izan zen ekainaren 13ko hauteskundeetan: %57,71. /2004-06-18

OSASUNA

### Kalitate ziurtagiria jaso zuen Mizpirualde egoitzak

Mizpirualde egoitzak ISO 9001-2000 ziurtagiria jaso zuen DNV erakundearen eskutik. Oteic aholkulari enpresarekin lanean izan ziren Mizpirualdeko langileak 2003ko iraila ezkero. Udaleko ordezkariak izan ziren ekainaren 7an Mizpirualden egindako ekitaldian. /2004-06-11

JAIAK

### Giro ona baina jende askorik ez Pazkoetan

Hurrengo urtera arte Bitorianazo agurtu genuen ekainaren ean. Giro ona baina beste urte batzuetan baino jende gutxiago ibili zen Pazkoetan Bergaran. Jai egitarauan ez zen aparteko nobedaderik egon. Jaietako martitzenean 80 lagun inguru elkartu ziren herri bazkarian. /2004-06-4

GAZTEAK

### Gaztetxearen 4. urteurrena ospatzeko ekitaldiak

Bergarako gaztetxeak laugarren urteurrena bete du aurten. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu zituzten ekainaren erdialderako. Besteak beste, rock kontzertuak, txapelketak eta antzerki emanaldiak egin ziren gaztetxekoen eskutik. Aipatutako ekitaldietan jende dezentek hartu zuen parte. Urtean zehar kontzertuak izan dira gaztetxeko programazioaren ardatza eta talde asko igaro dira kartzela zaharretik.

Bestalde, gaztetxearen 4. urteurreneko ospakizunen barruan, *www.astindu.org* webgunearen aurkezpena egin zuten ekainaren 16an. /2004-06-11


Gaztetxeak lau urte egin ditu.

KIROLAK

### Gazte mailako eskubaloi taldeak kopako finala galdu

Bergara KEko gazte mailako mutilen eskubaloi taldeak kopako finala galdu zuen Zarautz taldearen aurka, 31-34ko emaitzarekin. Bergararrek partidu bikaina egin zuten Mutrikun jokatutako finalean, baina ezin izan zuten txapeldunen trofeoa eskuratu. /2004-06-4



JOXAN
ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

ZAIAZKO
TELEKOMUNIKAZIOAK
Telesforo Aranzadi 3 943 76 10 66
Etxea dekoratzeko aukera zabalena

ESKAINTZA BEREZIA:
DIGITAL +
Orain DIGITAL +
euro 1 baino gutxiago eguneko
CANAL + BARNE
Abonatu orain

# UZTAILA



*"Kirol gogorra delako lotzen da txirrindularitza doping kontuekin"*

**MIKEL LARRAÑAGA**/ LOKATZA

2004-07-9



*"Aspaldiko proiektua da eta gutxienez bideratuta dago kirolgune berrIa"*

**IÑAKI UGARTEBURU** / DIPUTAZIOKOA

2004-07-12

## HILEKOESALDIA

**"Euskal dantza tradizionalean bide berriak zabaltzea lortu dugu azken urteotan"**

**EDU MURUAMENDIARAZ** / DANTZARIA

2004-07-2

## HILEKODATUA

**30**

**TXIRRINDUZALE QUEBRANTAHUESOS PROBAN**

Herriko 30 txirrinduzalek hartu zuten parte ekainaren 19an jokatutako Quebrantahuesos proban, Sabiñanigon. /2004-07-2



### Udalak 21,8 milioi euroko aurrekontua 2004. urtean

EAJ-EAren aldeko botoekin 2004rako 21,8 milioi euroko aurrekontua onartu zituen udalbatzak joan den ekainaren 28an. Udal gobernuan dagoen Aralar alderdia abstenitu egin zen botazioan. 2003ko aurrekontuarekin konparatuz, %11 egin dute gora aurtengo aurrekontuek. Inbertsioetarako 3.123.807 euro bideratu ditu Udalak. Zorpetze maila, bestalde, 15,26 puntukoa da. /2004-07-2

### IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

Erantzun bikaina izan zuen txapelketak. Mutilen zein nesken txapelketan talde ugarik hartu zuen parte. /2004-07-23

### URTEAGAKO LANAK, HASI GABE

Urteaga kaleko itxierarengatik kaltetutakoek lanak lehenbailehen hastea eskatu zuten. /2004-07-23

## AIPAGARRI



**ANA BALENTZIAGA**
**Igerilaria**

Ana Balentziagak 5. postua lortu zuen 100 metro libreetan, Euskal Herriko infantil mailako igeriketa txapelketan. 200 eta 400 m-tan 9.a izan zen. /2004-07-2



**RACHEL OLABARRIA**
**Futbol jokalaria**

Rachel Olabarriak denboraldi bikaina egin zuen Oiartzun taldearekin. Nesken Superligako igoerarako partidua Bartzelonaren aurka galdu zuten. /2004-07-9



**JON SUINAGA**
**Komiki egilea**

Jon Suinagak *Jony eta lagunak* komiki liburua plazaratu zuen. Umorea eta kritika uztartzen ditu Suinagak. Gaztelerazko bertsioa ere atera zuen. /2004-07-26

ARATZ
ALBAITARI KLINIKA
Aratzek gabon zoriontsuak opa dizkie bezero guztiei
Zurradero 6, behea
Tel.: 943 76 70 67 poltsikokoa: 607 48 71 19

IMPRESPAL, C.B.
ARTE GRAFIKOAK
ZORIONAK GUZTIOI!
• Offset
• Enkuadernazioa
• Koloretako fotokopiak
Komenio kalea 2 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 00 01 • Faxa: 943 76 22 41
e-posta: imprespal@euskalnet.net

## LBISTEIZANZEN

DEBAGOIENEAN

### ltegia, beste urte rdiz zabalik

rreko alkateek hori erabaki eta ktoreari eskatu zioten epe horretan tegiaren baliagarritasuna frogatzeko ana aurkeztea.

04-07-20

EUSKAL HERRIAN

### apaterorekin bilera an zuen Ibarretxek

ndoan, "Estatu proiektu komun " hausnartzeko borondatea azaldu n Ibarretxe lehendakariak Espainiako bernuko presidente Zapaterori.

04-07-26

MUNDUAN

### arlon Brando hil zen, oizko aktore onena

rlon Brando, askoren ustetan inoizko orerik onena, Los Angelesko ospitale en hil zen. 80 urte zituen eta diru etik lur jota zegoen.

04-07-02

## LANA



### Etxez etxeko zerbitzuko langileen greba

Etxez etxeko zerbitzuko langileek astebeteko greba deitu zuten uztailean. Langileek eskatutako baldintzak negoziatzea eskatzen zioten Gizaintza enpresako ordezkariei. 29 langilek ziharduten etxez etxeko zerbitzuan lanean, Udalak azpikontratatutako Gizaintza SL enpresaren bitartez hain zuzen. Lan baldintzen hobetzea zen langileen aldarrikapena. /2004-07-2

KULTURA

### Musika eta zinea udako gauak alaitzeko

Udako gauak programazioaren barruan, musika eta zine emanaldiak izan ziren uztailean eta abuztuan. Musika emanaldiekin hasteko Basin Street Cafe taldeak emanaldia egin zuen Espoloian. Zine emanaldiak abuztuko eguenetan izan ziren, San Martin plazan. /2004-07-9

EUSKARA

### EHEk hizkuntza eskubideen aldeko kanpaldia egin zuen

Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatutako kanpaldia izan zen uztailaren 9-11 bitarteko aste bukaeran. EHEko kideek funtzio publikoan euskara erabiltzeko orduan ziren oztopoak salatu nahi zituzten. Epaitegietan euskarak bizi duen egoera biziki kritikatu zuten. /2004-07-9

OLA

### uruguza-Gutierrez koteak Debarroko nala galdu

der Muguruza eta Igor Gutiez osatutako bikoteak Debaoko Txapelketako finala galdu en Aretxabaletako Errasti aien aurka, 22-18. Luzea bezain gorra izan zen senior mailako ala. Azkenean, esan bezala, etxabaletarrek jantzi zuten apela. /2004-07-2

HEZKUNTZA

### Uztaileko udalekuetan 365 neska-mutikok jardun zuten

Uztailaren 1ean zabaldutako udalekuetan 2-14 urte bitarteko 365 neska-mutiko ibili ziren. Xipizarok 10. urtez antolatu zituen udalekuak. Giro euskaldunean gaztetxoak ondo pasatzea da udalekuen helburu nagusia. San Fermin eguna ospatzeko kalera irten ziren. /2004-07-9

HIRIGINTZA

### Osintxuko zubi berria egiten hasi ziren uztailean

Uztailaren erdialdean Osintxuko zubi berria egiteko lanak hasi ziren. Soraluce kooperatibak eta Udalak bere garaian sinatutako hitzarmenaren arabera, Soralucek hartu zuen proiektua bere gain. Udalak eta Soralucek 2002ko ekainaren sinatu zuten hitzarmena: enpresa handitzearen truke, Soralucek zubi berria egiteko konpromisoa hartu zuen. Zubi berriak 35 metroko luzera izango du, milioi bat euro inguruko aurrekontuarekin. Osintxuko auzotarrek aspalditik eskatuta zuten zubi berria egitea, tona askotako kamioiak pasatzen zirelako Osintxutik. /2004-07-9

JAIAK

### Primerako giroa San Martzialgo erromerian

Herritarrek ez zuten hutsik egin San Martzialgo erromeriarekin, uztailaren 4an. Goizean goizetik igo zen jendea San Martzialera eta eguraldia lagun, hamarretakoa, dantzak, bertsoak eta bestelako ekitaldiekin gozatzeko aukera izan zuten herritarrek, urtero legez. /2004-07-9

ROYDE
BEARINGS
Errodamendu berezien, burdineria eta sistema iristakorren fabrikazioa



BVQi ISO 9001
UKAS QUALITY MANAGEMENT
Gabon zoriontsuak!
Royde, S. Coop. •157 posta-kutxa • Amilaga, 9 • 20570 BERGARA
Tel.: +34 943 76 16 40 • Faxa: +34 943 76 50 75 • e-maila: rap@royde.com • www. royde.com

DECOLETAJES BIOK
Prezisiozko dekoletajea era guztietako materialetan
ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!
Amillaga 6 • 286 posta kutxa • 20570 BERGARA Gipuzkoa • Tel. 943 76 53 29 • Faxa 943 76 41 05

# ABUZTUA



*"Gauzak alde artistikotik begiratzeko garai aproposa da uda"*

**JESUS MARI LAZKANO**/ PINTOREA

2004-08-4



*"30.000 pegatina ezberdin baino gehiago ditut fitxategietan gordeta"*

**JAVI ROMAN** / BILDUMAZALEA

2004-09-3

## HILEKOESALDIA

**"Esloveniarekin harreman komertzialak dituen Gipuzkoako enpresa bakarra gara"**

**JOSE JABIER LARRAÑAGA** / LACOR

2004-08-1

## HILEKODATUA

# 4

**MILIOI EURO URTEAGAKO LANAK EGITEKO**

Diputazioak aditzera eman zuenez, Urteagan egin beharreko lanen aurrekontua lau milioi euro da. /2004-09-13



## 'Aupa Etxebeste!' filma errodatzen hasi ziren Bergaran

Asier Altuna *Kixi* bergararrak eta Telmo Esnal zarauztarrak zuzendutako *Aupa Etxebeste!* film luzea errodatzen hasi ziren Bergaran, abuztuan. Besteak beste, Ramon Agirre, Pako Sagarzazu, Elena Irureta eta Iban Garate dira aktore protagonistak. Era berean, herritar ugarik hartu zuen parte filmaketan. Jende mordoa aurkeztu zen uztailean egindako *casting*-era. /2004-09-3

TURISMOAK GORA BERGARAN

↑ Euskal Herriko tendentziari eutsiz, turismoak gora egin zuen Bergaran aurtengo udan. /2004-09-3

IGERILEKU ESTALIA UDARI AURRE EGITEKO

↓ Bigarren urtez, kanpoko igerileku barik igaro genuen uda bergararrok. /2004-09-3

## AIPAGARRI



**IGOR GORDOBIL**
**Entrenatzailea**

Igor Gordobil arrasatearraren eta Andoni Azkargorta antzuolarraren eskutik, preferente mailako futbol taldeak denboraldi berriari ekin zion. /2004-09-3



**VICTORIANO GALLASTEGI**
**Bergarako alkatea**

Victoriano Gallastegik publikoki salatu zuen abuztuaren 26ko gauean herriko hainbat tokitan egindako pintadak. Kalteak gaitzetsi zituen alkateak. /2004-09-3



**GABRIEL MEDINA**
**Langilea**

Gabriel Medinak sorpresa galanta hartu zuen abuztuaren azkenetan: Moiua Dorrearen inguruan duen ortuan 1,835 kiloko tomatea jaso zuen. /2004-09-3




TREKUTZ S.A.L.
BERGARA
Eguneroko zerbitzua
Agentzia
Bergara: San Lorenzo industrialdea
Tel.: 943 76 17 68 - 943 76 19 86

PASCUAL
TELEKOMUNIKAZIOAK
Arrasate 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.
UNItec
Liderrak telefonia mobilean


EGi golmar
Ibargarai 5 BERGARA
943 77 70 14 Faxa: 943 77 70 16
bergara@pascualalzuri.com
Banatzaile ofiziala
Telefónica MoviStar






**IPINTZA**
**DBH (12-16 urte)**
**BATXILERGOA (16-18 urte)**
Giza eta gizarte Zientziak
Natur eta Osasun Zientziak
Teknologikoa

GOIESKOLA

Boni Laskurain 17-19
Tel.: 943 76 31 42 / 43
012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintzabhi



**HHI-EPA**
(18 urtetik gorakoentzako)
Alfabetizazioa (etorkinentzako)
Kultura orokorra
DBH
Unibertsitatean sartzeko kurtsoa
Alfa karneta
Euskara eta Ingelesa

Barrenkale 33-2
Tel.: 943 76 44 52
012266aa@hezkuntza.net



**SAN MARTIN**
**HAUR HEZKUNTZA (3-6 urte)**
**LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)**
Boni Laskurain 25
Tel.: 943 76 21 47
012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola

San Martin Agirre herri eskola
GOIESKOLA



**M. ALTUNA**
**LANBIDE HEZIKETA**
Erdi Mailako
Zikloak
(16-18 urte)
Goi Mailako Zikloak
(18 urtetik aurrera)
- Mekanika
- Elektrizitatea
- Administrazioa

Plastikoak eta kautxoak
Ibargarai 1
Tel.: 943 76 24 91 / 76 38 40
imaltuna@sarenet.es
www.imaltuna.com

SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA
Bergarako ikastetxe publikoak

# IRAILA



*"Beteranoen mailan Euskal Herriko errekorrak haustea da nire asmoa"*

**IÑIGO GALLASTEGI**/ IGERILARIA

2004-09-24



*"UNESCO erakundearen bidez Bartzelonako Forumean ere izan gara"*

**VIRGINIA IMAZ** / OIHULARI KLOWN

2004-09-13

## HILEKO ESALDIA

**"Iaztik nengoen Logroñoko txapelketan finalera heltzeko gogoz, eta pozgarria izan da irabaztea"**

**IKER AZAGIRRE** / PILOTARIA

2004-09-17

## HILEKO DATUA

# 52,7

**LITRO EURI JASO ZIREN IRAILAREN 9AN**

Sekulako euri jasa izan genuen joan den irailaren 9an. Luis Mari Agirreren datuen arabera, 52,7 litro euri jaso zen. /2004-09-17



### Kirolgune berriko lanak abian

Agorrosingo instalazio zaharrak botatzen hasi ziren Antzibar SL enpresako langileak irailaren erdialdean. Lehenbizi Bergara Igeri Elkarteko bulegoa zuen eraikina eta kanpoko igerileku handia zena bota zituzten Antzibar enpresako langileek. Lehen fase horretako lanek bi milioi euro inguruko aurrekontua daukate eta maiatzaren erdialderako amaituko dituzte.

Horren ondoren, kirolgune berria eraikitzeko lanak adjudikatuko dituzte. Hurrengo fasean, estalitako bi igerileku, aldagelak, gimnasioa, squasherako frontoia, haurtzaindegia eta kafetegijatetxea eraikiko dituzte. Eta gero, jolas-igeritokia (neguan estalkia izango du) egingo dute. Aurrekontua 10,7 milioi euro da. /2002-09-24

**ETXEZ ETXEKO ZERBITZUKO LANGILEAK**

↑ Gizaintzarekin izandako liskarren ondorioz, Eulen enpresak hartu zuen etxez etxeko zerbitzuaren ardura. /2004-09-17

**SAN PEDRO KALEAREN EGOERA**

↓ San Pedro kaleko dendariek kalea behar den moduan argiztatzea eskatu zioten Udalari. /2004-09-24

## AIPAGARRI



**UNAI ETXEBERRIA**
**Ehiztaria**

Bergarako ehiza txapelketan nagusitu zen Unai. 26 ehiztarik jardun zuten lehian, Zanbranan. Beteranoetan Vicente Uribesalgok irabazi zuen. /2004-09-24



**YOLANDA GUILLEN**
**Antzerki zuzendaria**

Donostiako Ispilu antzerki taldeko zuzendaria da Yolanda Guillen bergararra. *Cuentalo tu que tienes mas gracia* antzeztu zuten Zabalotegin. /2004-09-10



**MIREIA GABILONDO**
**Aktorea**

*Kutsidazu bidea, Ixabel* eleberria zinemara eramango dute eta Mireia Gabilondo izango da zuzendarietako bat. *Martin* telesaioan dihardu Mireiak. /2004-09-24

Gabon zoriontsuak eta urte berri on herritar guztioi!

EA
eusko alkartasuna
www.euskoalkartasuna.org

Barrenkalea 18
BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 26 81

GA
Gazte Abertzaleak
www.gazteabertzaleak.org

**ALBAITARIAK**
- **ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67 / 607 48 71 19
- **ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala)** 609 54 16 13
- **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

**ANALISI KLINIKOAK**
- **LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

**BARNE MEDIKUNTZA**
- **IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

**DENTISTAK**
- **AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
- **ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46
- **ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95
- **BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77
- **GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
- **CAVIGLIA Silvana** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
- **IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
- **SAINZ Ana** Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69
- **TRIPALDI Enrike** Justo Garate 1. 943 76 70 76

**DIETISTAK**
- **ALBERDI Mireia** Olaran etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA
  Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

**ERREHABILITAZIO FISIKOA**
- **LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

**FISIOTERAPEUTAK**
- **ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
- **BASTERRETXEA, Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**HOMEOPATA**
- **GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

**MASAILARIAK**
- **AZPEITIA Irune** Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43
- **CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
- **ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**
- **BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

**MEDIKUNTZA OROKORRA**
- **OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

**OTORRINOLARINGOLOGOA**
- **IGARTUA ALMANDOZ Julian** Barrenkale 35-1 ezkerra. 943 76 70 91 630 653 202

**PODOLOGOAK**
- **IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84
- **AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

**PSIKIATRA**
- **GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ezk. 943 76 26 64

**PSIKOLOGOAK**
- **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
- **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
- **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

**YOGA**
- **SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behea. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
**OSASUN GIDA**
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Gabon zoriontsuak!



Saunier Duval

DICOMAN S.L.

San Lorentzo, 21
20570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
Tf. 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA



AGIRRE
HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak,
Gotzone Arkarazo eta Silvia Romero laguntzaileak eta
Ainara Marquez harreragilea





- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Inplanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. BERGARA
943 76 00 23
09:00-13:00 eta 17:00-21:00

AEGON aseguroak
RPS: 139/01



## ALBISTEIZANZEN

DEBAGOIENEAN

### Drogen politika askeagoa izan nahian

Legebiltzarrak horri buruzko Ez Legezko Proposamena bideratzen zuen bitartean, Eskoriatza eta Arrasateko udalek politika askeagoak eskatu zituzten.
2004-09-03

EUSKAL HERRIAN

### Nerabe jazartu batek bere burua hil zuen

Jokin 14 urteko ikasleak bere buruaz beste egin zuen Hondarribian, ustez, hainbat ikaskidek egindako jazarpena jazaroago jasan ezinda.
2004-09-21

MUNDUAN

### 200 hildako eskola baten bahiketan

Ikastetxe baten bahiketa bukatu zen Beslanen (Errusia). Txetxeniarrek bahitu zuten. 200 lagunetik gora hil (gehienak umeak) eta 700 zauritu zituzten.
2004-09-03

## HEZKUNTZA



### Miguel Altunan pabilioi berria egiteko lanak hasi zituzten

Plastikoetara zuzendutako industria pabilioia eraikitzen hasi ziren irailean Miguel Altuna ikastetxean, Seminario aldera. Lanek 80.000 euro inguruko aurrekontua zeukaten, eta tailerra datozen bost urteotan erabiltzeko egin dute. Hain zuzen ere, bost urte barru, Miguel Altuna ikastetxe berria Mayc inguruko lursailetan egotea espero dute Hezkuntza Saileko arduradunek. /2004-09-3

JAIAK

### Danbor hotsak San Martin eguna ospatzeko

San Martin jaiak ospatzeko hainbat ekitaldi izan genituen herrian. San Martin egunean, sokamuturra, Udal Musika Bandaren emanaldia, gaueko disko festa eta, nola ez, danbor hotsak izan genituen protagonista. Ohikoa denez, jai giro bikaina izan zen San Martinetan. /2004-09-17

EUSKARA

### Herritarren artean euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina

*Euskeria, danon aukeria!* lelopean, euskararekiko sentsibilizazio kanpaina jarri zuten abian Udaleko Euskara batzordeak, Udal Euskaltegiak, Akulu AEK euskaltegiak eta Jardunek. Herritarren artean euskararen erabilera bultzatzea zen kanpainaren helburua. /2004-09-17

GIZARTEA

### Aceraliaren ke jarioa dela eta, hainbat herritarren kexak

Udan hainbat herritarren kexak jaso zituzten udaletxean, Aceralia enpresaren ke jarioa zela eta. Auzotarrak eta beste hainbat herritar kexu ziren ke jarioa zabaria zelako. Gabonetarako arazketa sistema berria martxan egongo zela adierazi zuten Aceraliako iturriek. /2004-09-10

AZPIEGITURAK

### Ibargaraiko ur kolektoreko lanak, otsailera arte

Ur zikinen kolektoreko lanak otsailerako amaitzea espero zuen Sobrino enpresak. Abuztuaren hasiera ezkero zebiltzan Sobrinoko langileak Ibargarai eta Bideberri inguruan lanean. Ur kolektoreko lanak 2005eko udan amaituko dituzte. Hiru enpresa ari dira lanak egiten. /2004-09-3



Ur kolektoreko lanak Bideberri inguruan.

KIROLA

### Aritz Kortabarria eta Joseba Zuzaeta triatletak, Holandan

Aritz Kortabarriak eta Joseba Zuzaetak Holandako Almere hiriko Iron Man proban hartu zuten parte abuztuaren 28an. Biek ere lan ona egin zuten eta lehenbiziko 50 partaideen artean sailkatu ziren. 3,8 kilometro igerian, 180 bizikletan eta maratoia egin behar izan zuten. /2004-09-10

EUSKALTEL FAMILIA PLANA
Maite dituzunei deitu 3 zentimo minutuko bakarrik
informa zaitez!!!



Kontratu eskaintzak
19€-tik
Nokia 3200
50€-tik
Siemens CX65
Packak 39€-tik aurera




Ibargarai Hiribidea 20
Tel.: 943 769 458
20570 Bergara
Pcphone 21
Banatzaile ofiziala: Euskaltel

ELKAR Fotokopiak
- Planoen handitzeak eta txikitzeak
- Ploteoa eta Ecaweoa
- Plastifikazioak DIN A4/A3 eta posterrak
- Koloretako fotokopiak
- Eskaneatzeak koloretan makina digital bidez
- Bulego materiala
- Fax publikoa
- Enkuadernazioak

Urte berri on !

e-posta: elkarcopias@terra.es
Artekale 1 • Tel.: 943 76 02 02
Tel./Faxa: 943 76 58 16

# URRIA



*"Argazki digitalak izan daitezke berrikuntza 2005eko argazki rallyan"*

**BENITO CANTERO**/ POL-POL ARGAZKI T.

2004-10-15



*"Iazko ildoari jarraituz, irratsaio musikalak dira nagusi Txapan"*

**LANDER JUARISTI** / TXAPA IRRATIA

2004-10-22

## HILEKO ESALDIA

**"Ez gara sailkapenak erakusten duen bezain txarrak, aterako gara zulotik"**

**IGOR GORDOBIL** / ENTRENATZAILEA

2004-10-29

## HILEKO DATUA

**500**

**LIBURUXKA BANATU ZITUZTEN BERGARAN**

*Idatziak: Etxejabeen komunitateetako agiriak* liburuxkaren 500 ale banatu zituzten herritarren artean. /2004-10-15



### Udalak autobus geltokiaren pareko orubea saldu zion Sukiari

Joan den urriaren 4ko udalbatzarrean erabakitakoaren arabera, Sukia enpresak egingo ditu Area 20ko F orubeko etxebizitzak. Gaur egun autobus geltokiaren pareko aparkalekua dagoen tokian 48 etxebizitza eraikiko ditu Sukiak. Orubeak 1.745 m$^2$ ditu, eta Sukia enpresak 5.328.463 euro ordainduko dizkio Udalari. Arrizuriaga parkearen urbanizazioaren kargu ere egingo da Sukia. /2004-10-8

**UNAI PEREZ DE ARENAZA MENDIZALEA**

↑ Unaik eta Oriol Varok *Vall de Boi* korridorea ireki zuten Shisha Pangman (8.013 m). /2004-10-29

**SUTEA ANTZUOLAKO ETA BERGARAKO MENDIETAN**

↓ Urriaren erdialdean izandako sute batek 50 hektarea inguru erre zituen Antzuolan eta Bergaran. /2004-10-15

## AIPAGARRI



**MAYRA JIMENEZ**
**Irakaslea**

Oihana Garitanorekin batera Beart elkarteak antolatutako pintura eta marrazketa eskolak ematen ditu Mayrak. Arte Ederrak ikasitakoa da. /2004-10-8



**EDU MURUAMENDIARAZ**
**Dantzaria**

Edu Muruamendiarazek zuzentzen duen Aukeran konpainiak *Izena duen guztia omen da* aurkeztu zuen Filipinetan, Manilan, urriaren 8an. /2004-10-8



**J. A. UNTZURRUNTZAGA**
**Argazkizalea**

Juan Antonio Untzurruntzaga Pol-Pol Argazki Taldeko kidea herriko onena izan zen (koloreetan eta zuri-beltzean) kirol argazkien lehiaketan. /2004-10-22

LAGUN GARAJEA
ad®
Tailer profesionala
Mekanika orokorra
ZORIONAK GUZTIOI!
Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20

TIEN 21
SANTOS
Ondo igaro Gabon jaiak!
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA. Tf. 943 76 26 10

## [A]LBISTEIZANZEN

[...]DEBAGOIENEAN

### [L]agun Arotik [...]sakidetzara aldaketa

[...]rrilean, 15.000 kooperatibista [...]agoiendar, Lagun Aroko onuradu-[...], Gizarte Segurantzan kotizatzen [...]ko dira. [...]04-10-29

[...]EUSKAL HERRIAN

### [...]ntza' eta 'Anboto' [a]txilotu zituzten

[...]el *Antza* eta Marixol Iparragirre [...]*boto* ETAko kideak atxilotu zituzten, [...]te 16 lagunekin, eta hainbat [...]ergailu eta arma antzeman. [...]04-10-03

[...]MUNDUAN

### [P]arisera eraman [A]rafat, azkenetan

[...]sir Arafat palestinarren buruzagia [...]ko ospitale batera eraman zuten, [...] gaixo zegoela-eta. Azaroaren 11n [...]zen, 75 urte zituela. [...]04-10-28

## HEZKUNTZA



### Aspacek egoitza berria ireki zuen Oxirondo plazan

Aspace hezkuntza bereziko zentroak egoitza berria ireki zuen urrian, Oxirondo plazan. Ibaiondoko lokala txiki geratu zitzaien, eta Oxirondokoan lanean dira urria ezkero. Hala ere, berritze lanak egingo dituzte Ibaiondoko lokalean, eta lokal bakoitzean lau monitorek jardungo dute aurrerantzean. Gaur egun 18 urtetik gorako 30 lagun inguru dira Aspaceko egoitzan. /2004-10-29

POLITIKA

### Bergara Aurrera, Udaleko batzordeetan lanean hasi

Udaleko batzordeetan parte hartzen hasiko zela adierazi zuten Bergara Aurrera taldeko kideek urriaren 19an, prentsaurrekoan. Era berean, udalbatzan ordezkaritza izateko borrokan jarraituko dutela adierazi zuten. Udal gobernuak egindako gestioa kritikatu zuten. /2004-10-22

ZERGAK

### Udal zergek %3,5eko igoera izango dute datorren urtean

EAJ-EA koalizioaren eta Aralar alderdiaren aldeko botoekin, 2005erako %3,5eko igoera finkatu zen udal zergetarako. Urak eta zaborrak, hala ere, igoera handiagoa izango dute. Urarengatik %7,95 gehiago ordainduko dugu eta zaborraren tasak %17 egingo du gora. /2004-10-22

[...]ESOAK

### [H]iru urteko kartzela [z]igorra ezarri zioten [P]aulo Elkorori

[Pa]ulo Elkorori hiru urteko kar[tz]ela zigorra ezarri zioten urria[re]n 13an, beraren aurka Madri[le]ko Auzitegi Nazionalean egin[da]ko epaiketan. Araba [Ko]mandoarekin kolaborazio [as]mentzioa leporatu zioten. Pau[lo] Elkoro 2003ko urtarrilean atxi[lo]tu zuten, Alemanian. /2004-10-15

KULTURA

## Udal Bandaren historia jasoko dute Justo Garate bekan

Udal Musika Bandaren historia biltzea izango da Justo Garate bekaren helburua datorren urtean. Bandak bere sorreraren 175. urteurrena beteko du 2007an, eta aurretik taldearen historia jaso nahi da. Udal Musika Banda 1832. urtean sortu zen, eta 175. urteurreneko ospakizunei begira, besteak beste, Bandaren ibilbidea jasoko da. Bekaren zenbatekoa 6.000 euro izango da eta lana euskaraz egin beharko dute egileek. 2005eko lehen hiruhilabetekoan lana adjudikatuta izatea da Udalaren asmoa. /2004-10-22



Bandak 175 urte beteko ditu 2007an.

KIROLAK

### Kiroldegian skate pista jartzeko aurrekontua onartu

Udalbatzak Labegaraietan skate pista jartzeko gastu proposamena onartu zuen. Aurrekontua 44.750 euro da, eta kiroldegiaren kanpoaldeko berdegunean kokatuko dute pista. Skate pista gaztetxoen aspaldiko eskaera izan da, Matxiategin zegoena kendu zutenetik, hain zuzen. /2002-10-15

Servimasa

zorionak eta urte berri on!

Haitz-Iturri 4 • Posta kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 • Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

103 industrialdea
Tel.: 943 52 05 00 • Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO (Gipuzkoa)

Zuri beltz Margoak

Barnealde eta kanpoaldeen erreforma
Pintura zerbitzu osoa

Zubieta 28 BERGARA • 607 447 494
Txomin Santamaria 609 150 164 • Jabier Seco 678 615 045

Urte berri on!

# AZAROA



*"Penaz utzi dut Musika Banda; lagun asko eta harmonia eman dizkit"*

**JOSE LUIS PUMAR**/ MUSIKARIA

2004-11-19



*"Nerabeen artean drogen kontsumo problematikoa da saihestu behar dena"*

**NAGORE IBARRA** / ETORKINTZA

2004-11-19

## HILEKO ESALDIA

**"Bergarako erretiratuak gizarteko alorretan inplikatuta daude, elkarte bizia da San Joxepe"**

**IZARNE LIZASO** / EHU-KO IRAKASLEA

2004-11-12

## HILEKO DATUA

**3.020**

**UDAL LIBURUTEGIAREN BAZKIDE KOPURUA**

Udal Liburutegiak 3.020 bazkide ditu gaur egun. 2005ean EAEko liburutegien katalogo bateratuan izango da. /2004-11-26



### Autobus geltokia Torrekuan kokatzea erabaki zuen Udalak

Behin-behineko autobus geltokia Torrekuan kokatzea erabaki zuen Udalak. Geltokia lekuz aldatzeko arrazoi nagusia Udalak Ibargaraiko bizilagunengandik azken bi urteotan jasotako kexak izan dira. Udaleko Obra eta Zerbitzuetako langileak Torrekuan autobus geltokia kokatzeko lanetan hasi ziren azaroaren hasieran. /2004-11-12

**GABERO ABESBATZA**

↑ Gabero abesbatzako kantariak Holandako Veldhoven hiriko gazteen abesbatza lehiaketan izan ziren. /2004-11-5

**UR KOLEKTOREKO LANAK**

↓ Ur kolektoreko lanek nahasmena ekarri zuten herri barruko zirkulazioan. /2004-11-19

## AIPAGARRI



**DANI LASKURAIN**
**Margolaria**

Laskurainek lehen saria irabazi zuen Agoizko Nazioarteko Pintura Lehiaketan, Nafarroan. Dani Laskurainek 6.000 euroko saria jaso zuen. /2004-11-12



**ZIGOR MARTINEZ**
**Musikaria**

Arrasate Musikaleko Big Band taldeko zuzendaria da Zigor. 21 lagunek osatzen dute taldea. Emanaldia egin zuten Bergaran, azaroaren 13an. /2004-11-12



**JOSE LUIS FEO**
**Argazkilaria**

Pol-Pol Argazki Taldeko kideak 3D-ko argazkilaritza lantzen dihardu azken urteotan. Ibilbide horretan aitzindarietako bat dugu Jose Luis. /2004-11-5

DISSOL

Banatzaile ofiziala
PRAXAIR

SOLDADURARAKO ARTIKULUAK-GASAK- PISTOLAK ETA OSAGARRIAK- HARIAK- ELEKTRODOAK-MAKINERIA

BERRIZ BILTEGIA
Eitua poligono industriala 41B
48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 946 82 76 06
Faxa: 946 82 65 34

BERGARA BILTEGIA
Benta berri z/g
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 28 97
Faxa: 943 76 50 56

URTE BERRI ON!

Nerea

Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak

Ondo pasau Gabonak !!

Simon Arrieta plaza 1 • Tel.: 943 76 19 52



edertu



sarrera berria (kruz gallastegi)



edertu

masterreka 9-11
tel.943765879

barrenkale 23
tel/fax.943762965

ZORIONAK GUZTIOI !!

BERGARA
Kafea-Pentsioa





Logelak



Kafetegia

EGUNERO GOIZEKO 7:00etatik ZABALIK
Bidekurutzeta 34, BERGARA 943 76 47 23

*Ondo pasau Gabonak!*






50 urte baino gehiagoko
esperientzia
eta profesionaltasuna
egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural,
propano eta butano eta
berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Jai zoriontsuak izan
ditzazuela!

**Larrañaga**
**Eguren, B. M.**

Juan XXIII
Tf. eta Faxa 943 76 11 88
20.570 BERGARA

## ALBISTEIZANZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Akei onbideratzeko lanak, amaitzear

Urte askoan osasun eta ingurumenarentzat kaltegarri izan diren lurrak onbideratzeko lanak amaitzear zeudela jakinarazi zuten erakundeek.
2004-11-19

▸ EUSKAL HERRIAN

### Elkarrizketaren alde egin zuen Batasunak

Batasunak bere bake proposamena aurkeztu zuen. Elkarrizketa erabiltzeko konpromisoa hartu, eta autodeterminazioa baldintza moduan jarri zuen.
2004-11-13

▸ MUNDUAN

### AEBetako presidente berretsi zuten Bush

George W. Bush beste lau urterako aukeratu zuten AEBetako presidente, oso hauteskunde borrokatuetan. Herri botoen gehiengoa ere lortu zuen.
2004-11-03

## ZAHARRAK BERRI



### Salgado Alba saria jaso zuen San Joxepe elkarteak

Elkartea berritzeko hartutako konpromisoa eta azken urteotan egindako lana aitortu zizkieten San Joxepeko erretiratuei. Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen Salgado Alba saria jaso zuten San Joxepekoek azaroaren 10ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan egindako ekitaldian. EHUko Psikologia Fakultatearen laguntzaz landu zuen San Joxepek bere proiektua. /2004-11-12

EUSKARA

### Komertzioetan euskara bultzatzeko kanpaina abian

*Hemen be euskaraz egin zeinke* lelopean, herriko komertzioetan euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina abian jarri zuten. Erosketak egiteko orduan jendeak euskara erabiltzea da kanpainaren helburu nagusia. Dendetan kanpainako ikurrak jarri zituzten. /2004-11-19

GIZARTEA

### Bergarako Batzokiaren 100. urteurrena

Abenduaren 12an 100 urte bete ziren Bergarako Batzokia zabaldu zutela. Urteurrena ospatzeko ekitaldiak azaroaren 12an hasi ziren, euskal selekzioen inguruko mahai-inguru batekin. Bestalde, Batzokiaren historia jasotzen zuen liburua idatzi du Juan Luis Bikuñak. /2004-11-12

KULTURA

### Udal Liburutegia, EAEko katalago bateratuan

Bergarako Udal Liburutegia Euskal Autonomia Elkarteko Liburutegien katalogo bateratuan izango da. Horren ondorioz, bazkideek Bergarako zein beste herrietako liburutegietara jo ahal izango dute Internet bitartez. Udal Liburutegiak 3.020 bazkide ditu gaur egun. /2004-11-26

HIRIGINTZA

### Goiko Estazioko eraikina berritzeko proiektua abian

Bergarako hainbat rock taldek erabiltzen duten Goiko Estazioko eraikina berritzeko 249.800 euro inguru bideratuko ditu Udalak. Berritze lanak udaberrirako egongo dira amaituta. Goiko Estazioko eraikinak bi solairu ditu, eta musika taldeek 2000 ezkero erabiltzen dute. /2004-11-26

KULTURA

### Txapa Irratia: 20. urteurrena ospatzeko ekitaldiak izan ziren

Txapa Irratia hasi zela 20 urte bete ziren joan den azaroaren 20an. Irratiaren 20. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituzten Txapakoek. Ospakizun ekitaldiak azaroaren 15ean hasi ziren, eta, besteak beste, Txapa Irratiaren hasierako saioak berreskuratu zituzten aste hartan egindako programazio berezian. Txapako sortzaileekin mahai-inguruak ere egin zituzten. Esan bezala, azaroaren 20an, herri bazkaria eta jaialdia izan ziren gaztetxean. Guztira, 60 lagun inguru dabiltza programazioa lantzen, eta musika irratsaioak dira nagusi. /2004-11-12

GIZARTEA

### Telesforo Monzonen gaineko hitzaldiak eta mahai-inguruak

Telesforo Monzonen jaiotzaren 100. urteurrena bete zen abenduaren 1ean. Hori dela eta, Euskal Herrian zehar mahai-inguruak eta hitzaldiak izan ziren, Monzonen askotariko alderdiak aztertzeko. Azaroaren 19an egin zuten azken ekitaldia, Olaso Dorrean. /2004-11-12

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
MUJIKA FERRETERIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Ondo pasa denok Gabonetan!
Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

Berlina esango diogu oraindik ere, errazago ulertzeko.
Zorionak eta urte berri on !!

Toledo berria. Berlinaren definizioa zabaldu egiten du.
Toledo berria. Motor berriak: FSI 150 ZP 6 abiadura eta TDI 105l 140 ZP. DSG aldagailu berriak. DSR Erantzun-Dinamika Sistema. TCS trakzio kontrola eta ESP Egonkortasun Kontrola. Bi zonarako airegirogailua, 6 aire-zaku...
Toledo berria. Dagoeneko ez dago mugarik.
Bigarren eskukoetan eta 0 kilometrodunetan aukera zabala
www.autocentroigara.com
seat.es
www.eibarmotor.seat.es
TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.
Urteaga 37 Bergara Tel.: 943 76 12 50 Faxa: 943 76 47 51
Audi
SKODA AUTO
SEAT

# ABENDUA



*“Bigarren Errepublikan bizi izan zuen Batzokiak etaparik gozoena”*

**JUAN LUIS BIKUÑA**/ KAZETARIA

2004-12-3



*“Gazteak dira bezero onenak; ez diote diruari horrenbeste begiratzen”*

**M. A. MARTINEZ** / HARINDONDIN

2004-12-10

## HILEKO ESALDIA

**“Shisha Pangman, gailurrerako azken 200 m-ak bi orduan egin genituen; bide berriko alderik gogorrena da”**

**UNAI PEREZ DE ARENAZA** / MENDIZALEA

2004-12-3

## HILEKO DATUA

# 100

**URTE EGIN ZITUEN JUANITA IRASTORTZAK**

Juanita Irastortza Albisuak 100 urte bete zituen azaroaren 24an. Azkarruntz Goikoa baserrikoa, Donostian bizi da gaur. /2004-12-3



### Bergarako Elementala: 75 urteko ibilbidea

Udaletxeko osoko bilkuren aretoa jendez gainezka zegoela, *Bergarako Elementala: 75 urteko ibilbidea* liburua aurkeztu zuten abenduaren 15ean. Ikasle eta irakasle ohiak, enpresaburuak, ikastetxeko zuzendari izandakoak eta beste hainbat herritar izan ziren ekitaldian. Liburuaz gain, DVDa ere kaleratu du Miguel Altuna ikastetxeak. /2004-12-17

**PILOTAN EMAKUMEAREN PARTAIDETZA BULTZATUZ**

↑ Neska gazteen artean pilota bultzatzeko *Emakumea pilotari* egitasmoan hartuko du parte Udalak. /2004-12-10

**UDAL GOBERNUAN ADOSTASUNIK EZA BA-REN AUZIAN**

↓ Udal gobernuan ez da adostasunik Udalbatzan Bergara Aurrera plataformari lekua egiteko orduan. /2004-12-17

## AIPAGARRI



**MARIA COSSIO**
**Diseinugilea**

Gazte Informazio Guneko egutegiaren diseinu lehiaketa irabazi zuen. Bederatzi lan jaso ziren lehiaketan eta 300 euroko saria jaso zuen Maria Cossiok. /2004-12-3



**NAGORE IÑURRATEGI**
**Kirol monitorea**

Kirola Euskaraz programaren barruan, Nagore Iñurrategik kirol egokituaren gaineko fitxa didaktikoak egin ditu. Eibarren egin zuten aurkezpena. /2004-12-3



**MIREN GONZALEZ**
**Ikaslea**

Miren Gonzalezek irabazi zuen Jardunek antolatutako III. Olentzero Marrazki Lehiaketa. 6-11 urte bitarteko 631 haurren marrazkiak jaso zituzten. /2004-12-17

**Estella ortopedia**

Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna

*OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA*

• Etxerako laguntza teknikoa • Kirol Ortopedia • Oinetakoak • Mastektomia • Neurrira eginiko plantillak

Matxiategi 5, BERGARA. Telefonoa: 943 76 19 63

Gabon zoriontsuak!

RPS 421/97

Ford

**Berria Garajea**

Mekanika • Elektrizitatea • Karrozeria

Amillaga 49 • San Lorentzo Industrialdea
Tel. 943 76 24 43 • Faxa 943 76 22 43
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Zatoz FocusC-MAX berria ikustera!



## LBISTEIZANZEN

DEBAGOIENEAN

### spainiako errege-erreginak, gurean

araia ikerkuntza zentroko lehen harria ini zuten Espainiako errege-erreginek, atzuen txaloen eta beste batzuen ihuen eta protesten artean.
004-12-09

EUSKAL HERRIAN

### Egunkaria'-ko zazpi kide, auziperatuta

uskaldunon *Egunkaria*-ko zuzendari-ako zazpi kide auziperatu zituen Juan el Olmo epaileak, ETAko partaide atea egotzita.
004-12-02

MUNDUAN

### lauteskundeak berriz gingo dira Ukrainian

krainako Auzitegi Gorenak agindu en hauteskundeak errepikatzea, iktor Yuschenko hautagaiak eta milaka erritarrek iruzurra salatu ondoren.
004-12-03

## ASTEKO BERRIAK



### Lehendakaria Bergaran

Bergarako Batzokiaren sorreraren 100. urteurrena bete dela eta, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria izan zen abenduaren 13an jeltzaleen egoitzan bazkaltzen. Victoriano Gallastegi alkateak egin zion harrera, Ariznoa plazan. Euskadiko Buru Batzarrak Bergarako Batzokian egin zuen asteroko bilera. Bezperan, abenduaren 12an, 100 urte bete ziren Batzokia zabaldu zutenetik. Josu Jon Imaz EBBko presidentea eta Joseba Egibar GBBko presidentea izan ziren Bergaran. Era berean, Petra Irazola eta Natalio Juaristi alderdikide beteranoak omendu zituen Bergarako EAJk. Bukatzeko, 100 bat lagun elkartu ziren Batzokian egindako bazkarian, giro ederrean. /2004-12-17

UDALBATZA

### Azaroaren 30eko osoko bilkura bertan behera geratu zen

Azaroaren 30ean egin beharreko osoko bilkura bertan behera geratu zen Victoriano Gallastegi alkatearen aginduz. Bergara Aurrera plataformako ordezkariak zinegotzien mahaien ondoan jarri ziren eta han jarraitu behar zutela ikusita, alkateak bertan behera laga zuen bilkura. /2004-12-3

GARRAIOAK

### Tranbiaren trazaketa proposamena landu du Bergarako Udalak

Bergarako Udalaren aginduz, Sestra ingeniari eta arkitektura enpresak Gabiria eta Ibargarai arteko zatian tranbiak izango lukeen trazaketa posiblea landu zuen. Udalaren planteamendua Diputazioko zein Jaurlaritzako departamentuetan aurkeztuko dute. /2004-12-3

ABONAK

### z baino argi utxiago Gabonetan aleak apaintzeko

este urte batzutan baino argi utxiago jarri dituzte aurten abonetan kaleak apaintzeko. n Martin plazan, Mizpirualde gitzan eta San Antonion jarri tuzte, 5.000 euroko aurrekonarekin. Iaz 19.200 euro bideran zituen Udalak Gabonetako gizt apenerako. /2004-12-10

UDALBATZA

### EAJ-EAren jarrera salatu zuten Aralarko zinegotziek

Udalbatzan Bergara Aurrera plataformari lekua egiteko orduan, Aralarrek EAJ-EA koalizioaren jarrera salatu zuten: "Ez dute erakutsi borondaterik egoerari buelta emateko eta eta tentsioa areagotzen doa". Egoera blokeatuta dagoela esan zuten Aralarkoek. /2004-12-17




**Aralarko zinegotziek prentsaurrekoa eman zuten Kultura Etxean.**

KIROLA

### Bergara Igeri Elkartekoak, iazko markak haustera

Bergara Igeri Elkartean 8 urtetik 16 urtera bitarteko 69 igerilarik jardungo dute aurtengo denboraldian. Otsailean eta uztailean etorriko dira denboraldiko zitarik garrantzitsuenak: Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak. Igerilarien markak hobetzea da helburu nagusia. /2004-12-3

Garaje Murillo
Auto konponketak orokorrean
Zorionak eta urte berri on!
EUROTALLER SERVICIO
Leizeaga, 4 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 76 13 84

EVSKO S.A.
Urte berri on!
Makina-erremintako laguntzailea • Doitasunezko multzoak
Amillaga 7 · 147 pk · 943 76 21 41 / 76 46 05 · Bergara

# DATORREN URTERAKO



## Aroztegi etxeko erakusketa aretoa, urtarrilerako

Joan den astean ekarri zuten Aroztegi etxeko ate errenazentista. Haritz egurrez egindako XVI. mendeko tailak birgaitzen ibili dira hilabetetan, eta Aroztegin ikusgai egongo da. Aretoa urt e hasieran inauguratzea espero da. Lehenengo erakusketan Abdon Juaristi pintore bergararra zenaren lanak erakutsiko dituzte.



## Agorrosingo igerileku berriko lanek segituko dute

Irailean hasi dituzte Agorrosingo kirolgunea berritzeko lanak. Oraingoz, lehen fasearekin dabiltza: igerilekuen eraikin zaharra bota eta igerileku estali berriak eta eraikina (aldagelak, gimnasioa, sauna...) egin. Aurrekontua 1,7 milioi euro da eta 8 hilabete iraungo dute. Kanpoko igerilekuak 2006rako egongo dira.



## Ur kolektorea eta depuradora egiten jarraituko dute

Hankaz gora dago herria ur kolektorearen lanak direla-eta, eta horrela egongo da hilabete batzuetan. Ibargaraiko lanak amaitu orduko otsaila-edo izango da eta, gero, Masterreka, Zubieta, Ibarra... kaleekin jarraituko dute. Bestalde, Mekolalden eta Epelen urak garbitzeko araztegiak egiten hasiko dira.



## Artekalean eta Goenkalean zorua aldatuko dute

Bi kaleotan galtzada-harria jarriko dute. Goenkalean, orain dagoenaren ordez, berria. Lan horiek egiteko, baina, lehenbizi ur kolektorekoak amaitu beharko dituzte. Zorua aldatzeaz gain, azpiegiturak berrituko dira bi kaleotan eta baita Arruriagan ere: argia, gasa, telefonoa...

P. Manso
OPTIKO OPTOMETRISTAK



Irizar Pasealekua 2 • Tel.: 943 76 27 86
Zorionak guztioi !!

ETXEBERRIA
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK
Erosi zure oparia Etxeberrian eta 1.500 eurotako saria irabazi
Bidekurutzeta 16. BERGARA. Tel. 943 76 23 94 - 76 12 65

# GITASMOAK




## Lau horma, Urteagako luiziak ekiditeko

Hilabeteak daramatza itxita Urteaga kaleak, horrek sortzen dituen eragozpenekin, batez ere inguruan bizi direnei eta hango lantegikoei ere. Luiziaren ondoren sortutako kalteak konpontzeko eta berriz gerta ez daitezen, 1,5 milioi euro bideratu ditu Foru Aldundiak. Lurrei eusteko lau horma eraikiko dituzte.



## Auditorioa Errege Seminarioko eliza zaharrean

Bergarako Udalak dirulaguntzak jaso ditu Foru Aldunditik Errege Seminarioan auditorioa egiteko. Hala ere, eraikin osoaren jabetzaren gaineko negoziaketan dabiltza urteetan Udala eta Madrilgo Gobernua. Udalak eskuratu beharko luke jabetza, lanak hasteko. Datorren urterako lanak abiatzea da helburua.



## Bi etxe bloke eta 96 etxebizitza, Ibargarari kalean

Ibargarain bi etxe bloke egingo dituzte. Bakoitzak 48 etxebizitza izango ditu. Bloke horietako baten jabea Udala da eta Sukia enpresari adjudikatu dizkio lanak. Udalak, ordainetan, 66 lur azpiko aparkaleku publiko izango ditu. Bestalde, inguru osoa (Ibargarai eta Arrizuriaga parkea) urbanizatuko dute.



## Erabilera askotako areto izateko, Zabalotegi berritua

Novedades aretoko etxea laster bota egin beharko dute eta zine areto barik geratuko da Bergara. Hori gerta ez dadin alternatibak aztertzen dihardu Bergarako Udalak. Bat, Seminarioko aretoa izango litzateke; bestea, Zabalotegikoa goitik behera berritu eta erabilpen askotarako (baita zinerako ere) areto bihurtu.



OZAETA JAUREGIA
Tfnoa: 943 76 10 55
Faxa: 943 76 20 29

LASA
*Jatetxea*

Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

# Herriko koadrila bat, Gabonetako kantu kalejiran, 1966an



Badaude ohitura batzuk sekula galtzen ez direnak, eta Antzuolan ere horixe gertatzen da, Gabonetan. Oraingoan dakarkizuegun argazkia 1966koa da. Herriko Plazan ateratakoa da argazkia, elizaren aurreko aldean; atzeko aldean, arkupean, Gabonetako arbola handi bat ikus dezakegu; bitxia, benetan.

Lehenengo ilaran, ezkerretik eskumara: Arantza Manzisidor, Pilar Garmendia, Luis Garitano, Izaskun Azkarate (umea) eta Isabel Zabalo.

Bigarren ilaran, ezkerretik hasita: Juan Jose Azkarate, Jose Luis Zabalo, Maria Angeles Lizarralde, Jose Ignacio Jauregi eta Mari Tere Uranga.

Azkeneko ilaran: Juan Vicente Artolazabal, Jose Jabier San Sebastian, Jesus Zabalo, Pilara Larrea, Maria Angeles Igartza eta Begoña Garitano.

**Argazkia**: Isabel Zabalo
**Informazioa**: Isabel Zabalo
**Urtea**: 1966

**ADI, IRAKURLE!**

**Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero,**
zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera.
Zain gaituzu!

YON BILBAO S.M.

Urte berri on!

• ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK • BERO AKUMULADOREAK • KOMERTZIO ETA ETXEETARAKO MEGAFONIA
• ATEZAIN ELEKTRONIKO ETA BIDEO-ATEZAINAK • SEGURTASUN SISTEMAK • ARGIKUNTZAN ESPEZIALISTAK

36 URTEKO ESPERIENTZIA LUZEA

Tailerra eta erakustokia: A. Fleming 11. Tf eta faxa: 943 76 28 05 • Etxeko helbidea: Irizar 3. Telefonoa: 943 76 26 32

Zumelaga
JATETXEA

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela denok!

San Antonio 5 BERGARA = 943 76 20 21

62 urte zuen zerbitzura!




*Puntuazio altuena alboko eta aurretiko inpaktuan txoke proban eta umeen babesean Sedan trinko kategorian. **Salmenta prezio gomendatua Penintsulan eta Balearretan Opel Astra Essentia 5 ate 1.4 16v 90 ZP autoarentzat hilabete bukaera arte. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, kit akzesorioak, promozioko deskontua eta gasolina Prever Plana barne. Astra gama: kontsumoa (l/100km) mistoa 4,9tik 9,3ra. CO2 emisioa (g/km) 132tik 223ra.

# Giauto

Olabarrena, z/g. Tel. 943 76 33 44/46. **BERGARA**

Deutsche Post World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



# Indartsuago.

**Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.**

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobeagoa den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

*DHL Express Bergara*
*San Juan Erreka 33*
*20570 - Bergara*
*Tel.: 943 763 642*
*Faxa: 943 765 425*

MUNDUA MUGITZEN DUGU DHL

Goibekokale

ELGETA / Eguena / 2004ko abenduaren 23a / 211. zenbakia

# 2004 urteari begiratua

## ELGETA

ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
Tel.: 943 76 82 02 Faxa: 943 76 82 98

Zorionak eta urte berri on!

# URTARRILA



*"Matxura taldearekin eman nuen lehen kontzertuan Elgetako jendea ikusteak ilusio handia egin zidan"*
**GORKA ARIZMENDIARRIETAI**
MATXURA TALDEKO ABESLARIA ETA GITARRISTA
2002-01-25

OSPAKIZUNAK

## San Sebastian kofradiaren ospakizuna usadioari eutsiz

Mendetako usadioari eutsiz, Elgetako San Sebastian kofradiako kideek santuaren omenez ospakizuna egin zuten San Sebastian Egunean.

Errege Katolikoen garaian sortu zuten kofradia jauntxoek eta nobleek. Gaur egun, haien lurrak edo baserriak erosi zituztenak edo haien oinordekoak dira partaideak,35 guztira.

Kideak ez ezik ohiturak ere aldatu dira. Garai batean prozesioa egiten zuten anaikideek jantzi dotoreekin, eta hainbat arau bete behar zituzten. Esaterako, inork ezin zuen hutsik egiten San Sebastian Eguneko ospakizunera, bestela zigorra jasotzen zuen-eta.

Orain, meza, batzarra eta bazkaria baino ez dute egiten, eta aurten ere hala egin dute./2004-01-23

ELKARTASUNA

## Uste baino janari gehiago Saharako errefuxiatuendako

*Gosez hil nahi gaituzte* izenburupean kanpaina egin zuten Saharako errefuxiatuei laguntzeko. Urtarrilean janariak eta dirua jaso zituzten. Umeek azukrea, arroza, lekaleak, pasta, olioa eta atuna eraman zituzten eskolara. Udalak, berriz, kanpainarako laguntza ekonomikoa ematea erabaki zuen . /2002-01-11



Basamortura bidali zuten laguntza.

# OTSAILA



*"Ordenagailuak biltegian falta dena kontrolatzea erraztu digu"*
**LUIS MARI ARANTZETA**
OZKARBI ELKARTEKO PRESIDENTEA
2004-0227



*"Inauterietako dantza errazak aukeratu ditugu herritar guztiek egiteko"*
**MIREN ATXOTEGI**
DANTZA IRAKASLEA
2004-02-13

UDALA

## Alderdien arteko eztabaida saihesbidearen inguruan

Elgetan egin nahi duten saihesbideak polemika piztu zuen Udaleko alderdien artean.

Saihesbidea egiteko konpromisoa hartu ondoren, Aralarrek publiko egin zuen erabakia. EAJ-EAkoek, ordea, gezurretan ari zirela esan zieten.

Arazo horren gaineko azalpenak emanez Aralarrek prentsaurrekoan egin zuen. Esan zuten Aralarko batzarkideak eta EAJ-EAk Gipuzkoako Batzar Nagusietako aurrekontua zelaeta negoziazioak izanzituztela; eta horri esker egingo zela saihesbidearen proiektua.

Bide batez, Aralarrek esan zien EAJ-EAko udal ordezkariei publikoki barkamena eskatzeko, behin baino gehiagotan Aralarrek saihesbidearen gainean esandakoa gezurra zela esateagatik. /2004-02-06

KULTURA

## Goibeko kultura elkarteak urteko batzarra egin zuen

Urteko batzarra egin zuten Goibeko elkarteko hainbat bazkidek. Bertan, besteak beste, urteko ekintzen berri eman zuten eta Goiena Komunikazio Zerbitzuetako partaidetza ere izan zuten hizketarako gai. Baina garrantzitsuenak Espaloia Kafe Antzokiaren gainean esan zituztenak izan ziren. /2004-02-13

GARRAIOA

## Taxi zerbitzua garraioaren arazoa konpontzeko

Herritarrek garraio publikoarekin arazoak izan dituzte sarritan zerbitzua urria delako. Arazoari irtenbidea emateko hainbat aukera aztertu zituzten, besteak beste taxi zerbitzua abian ipintzea. Ordu zehatzetan taxia herrian egoteak izango lukeen kostuaren berri jaso zuten. /2004-02-20

JAIAK

## Santa Ageda eta San Blas jaiak ospatu zituzten

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, kopla kantari irten ziren eskolako umeak herriko kaleetara. Bestalde, herritarrek San Blas eguna izen bereko ermitan, Arantzetan, ospatu zuten otsailaren 8an. Meza, opilen bedeinkatzea, hamaiketakoa eta trikitilaririak ez ziren falta izan bertan. /2004-02-06

ELURRA

## Elurte egunetan informazioa emateko zerbitzua abian

Elurra diharduen egunetan eguraldiaren eta errepideen egoeraren berri emateko momenturoko zerbitzua ipini zuen abian Udalak. Informazioa telefonoz eta webgunearen bidez emango dute. Otsailean izandako elurteen harira bi egunetan 70 deitik gora jaso zituzten informazioa eskatuz. /2004-04-27

GABON ZORIONTSUAK IGARO!
EVE
INDUSTRIAS EVE, SA
Trokelgintza eta estanpazioa
Pagatza polig. Elgeta. 943 76 80 99

Arantzeta masajistak
• Osteopatia
• Kirol masajea
• Kiromasajea
Urte berri on denoi!
Salbador 28 • Tel.: 943 76 80 54 • 943 76 81 90 • ELGETA

# MARTXOA



*"Aerobikeko monitore ona izateko oso saltseroa izan behar da"*
**ERIKA AZKONA**
AEROBIK IRAKASLEA
2004-03-05



*"Nafarroa eta Errioxatik etortzen dira aurkariak, eta oso maila altua dute"*
**ETOR GARATE**
PILOTARIA
2004-03-26

GAZTEAK

## Gaztetxearen zortzigarren urteurrena ospatu zuten

Zortzi urte bete ziren martxoaren 20an gaztetxeak ateak ireki zituenetik. Hori zela eta, hainbat ekitaldi egin zituzten hilabete osoan: hitzaldiak, kontzertuak, kale bilkura, umeen eguna, antzerkia, mahai-ingurua...

Egunean bertan, herri bazkaria izan zen, eta bazkalostea trikiti doinuz, bertsoz eta ezustekoz alaitu zuten. Gauean, berriz, kontzertuarekin ospatu zuten zortzigarren urteurrena.

Gaur egun gaztetxeko asanbladan 15 lagun inguru izaten dira. Batez ere kontzertuak antolatzen dituzte, baina euren asma da bestelako ekintzak ere antolatzea, nahiz eta badakiten hitzaldietara, esaterako, oso jende gutxi joaten dela. Asanbladakoen esanetan, "borrokatzeko gauza asko gelditzen da oraindik, eta garrantzitsuena da gazteen kontzientziazioa bultzatzea eta pasotismoarekin amaitzea". /2004-03-18



Besteak beste, herri bazkaria antolatu zuten urteurrena ospatzeko..

POLITIKA

## EAJ nagusi Elgetan, 266 botorekin, hauteskundeetan

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak izan ziren martxoaren 12an. Emaitzen arabera EAJ izan zen nagusi, 266 botorekin; Aralar-Zutik koalizioa, bigarren, 143 boto jasota. Bergarako Ekimenaren aldeko 95 botoak baliogabetzat jo zituzten. Guztira, 643 boto izan ziren. /2004-03-18

UDALA

## Udalak 16 proiektu aurkeztu zituen Izartu programan

Gainbehera etorritako herriak edota ekipamendu faltan daudenak berpizteko Izartu programa du Eusko Jaurlaritzak. Laguntza jasotzeko 4.741.000 euroko eskaria egin zuen Elgetako Udalak. 16 proiektu aurkeztu zituen, baina dirulaguntza ukatu zioten. /2004-03-26

# APIRILA



*"Gure erronka noizbait Aste Santuko prozesioan Hilobi Santua berriz ateratzea da, baina oso pisu astuna du"*
**JOSE ANTONIO RETOLATZA**
PROZESIOKO PARTE-HARTZAILEA
2004-04-07

UDALA

## Udalak 6.808.443 euroko aurrekontua onartu zuen

Zinegotzi guztien eta alkatearen aldeko botoekin 2004ko udal aurrekontua 6.808.443 euro izatea adostu zuten.

Aurtengoa inoizko aurrekonturik handiena izan da. Iazkoarekin alderatuz bikoiztu egin dutela esan daiteke.

Aurrekontutik 5.647.649 euro inbertsioetara bideratu dituzte, eta Hirigintza batzordearen inbertsioetarako izan da kopuru handiena.

Aurrekontua onartu arren, Aralarkoek zalantzak azaldu zituzten EAJ-EAk aurkeztutako diru sarreren gainean. Beraz, adostu zuten sarrerak etorri artean gasturik ez egitea.Baita agintaldiari begira diru sarreren plangintza egitea ere. Elgeta Auzolanian plataformak ere eman zuen iritzia. Euren esanetan, "aurrekontuak desorekatuegiak dira, % 83 eraikuntzara bideratuta baitago". /2004-04-30



Aurtengo aurrekontua inoizko handiena da; iazkoaren bikoitza, hain zuzen ere.





Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik
Badihardugu

HERRIAREN HITZA ERRESPETATU

ORAIN HERRIA
ORAIN BAKEA



AUZOLANIAN UDALETXERA

# MAIATZA



*"Letrak idazteko momentuan gertatutako gauzetan inspiratzen naiz eta nire kantuek sentimenduak azaltzen dituzte "*
**IZASKUN OJANGUREN**
KANTARIA
2004-05-28

EPAIKETA

## Hilketa eta lapurreta egotzi zizkioten Aitor Mendikuteri

Donostiako Justizia jauregian epaitu zuten Aitor Mendikute. Arrate Elkoro Elgetako tabako saltzailea labankadaz hiltzea eta lapurretan egitea egotzi zizkioten.

Elgetako Udalak eta hildakoaren familiak salaketa ipini eta 30 urteko kartzela zigorra eskatu zuten. Fiskalak, aldiz, 25 urtekoa.

Epaiketan lekuko gisa deklaratu zuten hildakoaren senideek, lagunek, hainbat elgetarrek, ertzainek eta auzitegiko medikuak, besteak beste.

Epaia ikusita, fiskalak 24 urteko kartzela zigorra eskatu zuen Mendikuterendako eta akusazio partikularrak eta herri-akusazioak, aldiz, 27 urtekoa. Azkenean 23 urteko zigorra jarri zioten, baina abenduan bi urte gutxitu zuten zigor hori. /2004-05-21

ORDULARIA

## Iazko uda ezkero geldi egon ostean elizako erlojua konpondu zuten

Elizako erlojuak iazko udan utzi zion funtzionatzeari, zikinaren eta herdoilaren eraginez. Gasteizen konpondu zituzten Sueskun anaiek eta eurak arduratu ziren erlojua berriz martxan ipintzeaz. Lanerako kanpandorretik zintzilikatu ziren. Erlojua konpontzeko Joakin Gastezik 5.000 euro eman zituen. /2004-05-21



Langileak kanpandorretik zintzilik.

# EKAINA



*"Bolo jokalari ona izateko artea eta tenplea beharrezkoak dira"*
**LUZIO SARASKETA**
BOLO JOKALARIA
2004-05-18



*"Herritik herrirako jardun dugu eta jardungo dugu lanean"*
**OXEL EROSTARBE**
ARALARKO ZINEGOTZIA
2004-06-11

KULTURA

## Antzezlan batekin inauguratu zuten Espaloia Kafe Antzokia

Ekainaren 26an zabaldu zituzten Espaloia Kafe Antzokiko ateak. Orain dela lau urte baino gehiago aurkeztu zuen proiektua Goibeko kultura elkarteak Udalean; eta hamaika gorabeheraren ostean proiektua aurten gauzatu da.

Aretoaren helburu nagusia kultura eskaintza ahalik eta modu duinenean egitea da..Espaloia kudeatzen duen Goibeko elkartearen esanetan, "areto honek ziurtatuko du herritar guztiendako plaza berria izatea, kulturarendako leku zaindua denondako".

Inaugurazio ekitaldian Albadulake konpainiak *Malaje* antzezlana eraman zuen taula gainera, eta gainezka egon zen aretoa. Ordutik hona askotariko kultura ekitaldiak izan dira: kontzertuak, antzerkiak, hitzaldiak, diapositiba emanaldiak, zinekluba... /2004-04-25



Espaloia diseinu eta baliabide modernoekin egokitu dute.

HAUTESKUNDEAK

## EAJ alderdi bozkatuena Elgetan Europako Legebiltzarrerako

Normaltasuna izan zen nagusi Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Hala ere, aipatzekoa da abstentzio maila altua, %46,78, hain zuzen ere. Elgetan alderdirik bozkatuena EAJ izan zen 190 botorekin. Bigarren indarra Herritarren Zerrenda izan zen 99 boto jasota eta Aralar hirugarrena, 76 botorekin. /2004-06-18

ARAU SUBSIDIARIOAK

## Etxebizitzen gaineko arau subsidiarioak aldatzea erabaki zuten

Arau subsidiarioetan, etxebizitzen gaian, aldaketa egitea erabaki zuten Udalean. Ondorioz, babes ofizialeko etxebizitzez gain, hainbat gunetan etxebizitza tasatuak edo beste babes publiko mota batekoak eraikitzeko aukera dago. Aldaketaren arrazoia da enpresa eraikitzaile askok ez dituela babes ofizialekoak egin nahi. /2004-06-25



**BARRENENGUA** BASERRI TURISMOA
Egoetxeaga auzoa
20690 ELGETA
Tel.: 943 76 82 21
Urte berri on zoriontsua!

SISTECO
MAKINA-ERREMINTAK
Makina-erreminten salmenta, laguntza teknikoko zerbitzua (SAT) eta berreraikuntza
Urte berri on guztioi!
Pagatza parke industriala 7A saila, ELGETA. Tel.: 943 76 82 14. Faxa: 943 76 81 00

# UZTAILA



*"Hirugarren adinekoen beharrei erantzun nahi diegu zentro berriarekin"*
**KARMELE KORTA**
GIZARTE LAGUNTZAILEA
2004-07-9



*"Txirrindulari elkarteak jarrai dezan lekuko aldaketa behar dugu"*
**EMILIO MANDALUNIZ**
TXIRRINDULARI ELKARTEKOA
2002-07-23

INDUSKETAK

## Gerrako zortzi gorpuzki aurkitu zituzten Aranzadikoek

Intxorta inguruan eta Antsoategi baserriaren ondoan induskeṫa lanak egin zituen Aranzadi Zientzia Elkarteak. 36ko gerran hildakoen gorpuzkiak aurkitu zituzten bertan.

Apirilean gorpuzkiak egon zitezkeela esan, eta, indusketa lanen ostean, ekainean azaldu zituzten egindako aurkikuntzak.

Guztira zortzi gorpuzki aurkitu zituzten: Intxortan hiru eta Antsoategi baserri inguruan bost.

Airetik botatako bonba batek Intxortako babeslekua zulatu zuen, eta hiru gudari hil zituen. Horien gorpuzkiak izan dira aurten aurkitutakoak. Bestalde, Antonio Iturricastillok emandako argibideei esker aurkitu zituzten beste bostak.

Uztailean Aranzadi elkarteak bere webgunean ipini zuen aurkikuntzen gaineko informazio zehatza: Intxortako borroka, hilobien txostena... /2004-07-16



Aranzadi zientzia elkartekoek egin zituzten indusketa lanak.

URA

## Uriarte auzora ura eramateko lanak amaitu zituzten

Urarekin Uriarte auzoko bizilagunek zituzten arazoak konpontzeko hainbat obra egin dituzte. Lehen, iturburu batetik hartzen zuten ura; baina bigarren faseko lanak uztailean amaitu ziren, eta lehorte garaietan ere ez dute urarekin arazorik izango hemendik aurrera. /2004-07-09

JAIAK

## Jai batzordearen balorazio positiboa jaien ostean

Azoka Nagusiko jaiak amaitu eta zortzi lagun elkartu ziren eta jaiei buruzko iritziak jaso zituzten hurrengo urteetarako kontuan hartzeko. Oro har balorazio positiboa egin zuten egitarauko puntuak aztertuz. Jendearen partehartze handia azpimarratu zuen batzordeak. /2004-07-23

# ABUZTUA



*"Mankomunitateak turismoa indartzeko ahalegina egin nahi du; ostalariek aldeko jarrera azaldu behar dute horretarako"*
**PATXI BASAURI**
ALKATEA
2004-09-03

TURISMOA

## Tabernak zabalik eta baserri turismoko etxeak beteta

Abuztuan herriko tabernarik gehienak zabalik egon ziren, baita Elgetan dauden baserri turismoko bi etxeak ere.

Inguruko herrietan jatetxe batzuk itxita egon zirenez , kanpoko jendeak Elgetara jo zuen jatorduak egitera.

Barrenengua eta Eguzkitza baserri turismoko etxeak ere beteta egon ziren abuztuan. Italia, Alemania, Zeelanda Berria, Frantzia, Gales eta Espainiako jendea izan zen bertan, batez ere kataluniarrak.

Alkatearen esanetan, "Elgeta Euskal Herriko erdigunean egonik kanpotar askok aukeratzen du ostatu hartzeko".

Datorren urteari begira Udalak eta Mankomunitateak turismoa indartu nahi dute eta udako giroa alaitzeko ekitaldiak antolatu. /2004-09-03



Baserri turismoko bi etxeak jendez beteta izan ziren abuztuan.

autopullmans Araba

Gabon zoriontsuak
pasa ditzazuela
elgetar guztiok!

Tel.: 943 76 55 70 ANGIOZAR

LANDETXEA
EGUZKITZA



Jangela zerbitzua



Suite antzeko lau logela bikoitz:



Bainu osoarekin
*
Telebista
*
Berogailua, etab.



Eibarrerako bidea z/g Elgeta
Tel.: 943 78 90 84 Sakelakoa: 679 41 66 97

Urte berri on opa dizuegu denoi!

# IRAILA



*"Taldean kirola egin eta gorputza mugitzeko aerobik eskoletara etortzeko animatu nahi dut jendea"*
**MAIER IRAZABAL**
AEROBIK IRAKASLEA
2004-09-17

HAURRESKOLA

## Herri Eskolan zabaldu zuten behin-behineko haurreskola

Irailaren 15ean hasi zen ikasturtea haurreskolan. Lanean diharduten gurasoei laguntza emateko eta haien seme alabak hezteko helburua du.

Herri Eskolako gela bat egokitu zuten horretarako. Bertan, lotarako eta atsedenerako gune bat dute sehaskekin, beste gune zabal bat jolaserako eta baita sukaldea eta komuna ere. Kokapena, ordea, behin-behinekoa da; izan ere, gero, Torrealdean egiten ari diren etxeetan ipiniko dute.

Hiru umek hasi zuten ikasturtea Olatz Sarasola irakaslearekin, baina haurreskolan 0 eta 3 urte arteko hamar haurrendako lekua dago.Umeek, besteak beste, jolas egiten dute, ipuinak entzun eta baita psikomotrizitate ariketak egin ere. /2004-09-10

GARRAIOA

### Bergararako eta Arrasaterako autobus zerbitzu berriak abian

Elgeta Bergara eta Arrasaterekin lotzeko autobus zerbitzu berriak ipini zituzten, Udalak eta Foru Aldundiak adostuta. Izan ere, ikastera, errehabilitaziora edo ospitalera jende asko joaten da bi herri horietara, eta orain artean autobus gutxi zeuden. Lehen hilabetean zerbitzuok 381 bidaiarik erabili zituzten. /2004-09-12

INGURUMENA

### Pinudietan txingorrak eragindako kalteak aztertu zituzten

Uztailean izandako txingor zaparradak herriko hainbat pinudi kaltetu zituen, guztira 80 hektarea. Kaltea zenbaterainokoa izan zen aztertzeko Foru Aldundiko adituak izan ziren inguruetan. Gero, jabeei eman zieten ateratako ondorioen berri, eta horren araberako laguntzak eskatu ahal izan zituzten. /2004-09-17

# URRIA



*"Buztin zati batekin eta sormenarekin gauza asko egin daitezke"*
**PILI ARIN**
ARTISAUA
2004-10-01



*"Gure aurtengo erronka nagusia Eskola Txikien Jaia antolatzea da"*
**MIREN ARGI ZEZIAGA**
GURASO ELKARTEKO PRESIDENTEA
2004-10-08

MUSIKA

## Herriko hiru talde aurten Danbaka musika lehiaketan

Urriaren 22an ipini zuten abian Danbaka, Debagoieneko musika lehiaketa. 43 taldek eman zuten izena lehiaketarako eta horien artean hiru Elgetakoak ziren. Hogei talde aukeratu zituen epaimahaiak aurrera egiteko eta Elgetako hirurak zerrenda horretan ziren: Ostiada Oi! eta Matxura taldeak eta Izas bakarlaria.

Emanaldiak Espaloia aretoan izan ziren. Matxura taldea izan zen parte hartzen lehena. Elgeta eta Soraluzeko kideak daude taldean eta pop musika egiten dute.

Hurrengoa Izaskun Ojanguren *Izas* izan zen, eta hark ere pop doinuak eskaini zituen gitarraren laguntzaz.

Ostiada Oi! taldean Elgetako, Bergarako eta Arrasateko mutilak daude, eta haiek azkenak jardun zuten, oi! musika eginez. /2004-10-22



**Ostiada Oi! taldea izan zen lehiaketan parte hartzen azkena.**

POLITIKA

### Plataformak esan zuen dinamika bera jarraituko duela

Herri batzarra egin zuten, Elgeta Auzolanian plataformak deituta, Udaleko gorabeherak eta egoera politikoa aztertzeko. Bertan jakinarazi zuten ordura artean bezala osoko bilkuretan eta batzordeetan parte hartzen jarraituko dutela. Dena dela, botoen arabera dagokien zinegotzia eskatu zuten. /2004-10-22

URA

### Herri barruko ur hodietan konponketak egiten hasi ziren

Herria hazten ari dela eta ur gehiago behar dela konturatuta, ur hoditerian konponketak egiten hasi ziren. Ur depositutik Salbador kalera bitartean hodi handiagoa ipini behar dute. Horretarako urrian behin-behineko konponketa egin zuten, gerora hodia aldatzerakoan ur mozketak egon ez daitezen. /2004-10-15

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.*
*Zorionak eta urte berri on!*

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK



ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

Kiromasajea •
Erreflexologia •
Hidromasajea •
Kirol masajea •
Podologia •

• Solariuma
• Drenaje linfatikoa
• Algekin eginiko estalkia
• Depilazioa laser bidez

*Urte berri on!*

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko

# AZAROA



*"Lehen kanpora joan behar genuen zinemara, orain herrian dugu"*
**MAITE MANDALUNIZ**
ZINEKLUBEKO KIDEA
2004-11-05



*"Tamalez taldean edo koadrilan abesteko ohitura galtzen ari gara"*
**MARIA ELENA EZTENAGA**
LIBURUZAINA
2004-11-26

GIZARTE ZERBITZUAK

## Eguneko Zentroa zabaldu zuten adineko bost lagunekin

Uztailean inauguratu bazuten ere, zentro balioanizduneko ateak azaroaren amaieran zabaldu zituzten. Bertan batetik eguneko zentroa dago eta zaintzapeko etxebizitza bestetik.

Eguneko zentroa zabaldu zuten lehenengo eta bost lagunekin ekin zioten jardunari. Horietatik hiru dira elgetarrak eta beste biak Eibarkoak. Zaintzapeko etxebizitzarako, berriz, ez du inork izena eman oraindik.

Jardueretarako eremua, bainugela geriatrikoa, bulegoa, biltegia eta garbitokia daude Eguneko Zentroan. Adineko pertsona ezinduei eta adinekoak ez izan arren ezintasunen bat dutenei eskainiko zaie laguntza.

Elgetarrek egoitzetara eta eguneko zentroetara kanpora joan behar izaten zuten orain arte eta orain herrian jasoko dute laguntza hori euren ohiko harremanak hautsi gabe. /2004-11-26



Hiru elgetar eta bi eibartarrekin hasi zuen jarduna Eguneko Zentroak.

KIROLA

## Aurten Eskola Kirol programan 40 ikaslek dihardu

Ikasleen artean kirol zaletasuna bultzatzeko Eskola Kirol programa abian ipini zuten. Aurten 40 ikaslek eman zuten izena. 6 eta 16 bitarteko ikasleek hainbat kirol probatzen dituzte. Euretako batzuek, gainera, Bergaran eskolen arteko lehiaketan hartzen dute parte. /2004-11-19

TABERNAK

## Kiroldegiko Bolatoki taberna ireki zuten jabe berriek

Lehengo jabeek taberna utzi eta hainbat hilabetez itxita egon ostean, berriz zabaldu zuten Bolatoki taberna. Durangoko Feli Descarga da jabe berria. Taberna ez ezik kiroldegia bera zaintzeko ardura ere hartu zuen eta baita bertako mantentzelanak egitekoa ere. /2004-11-26

# ABENDUA



*"Kubara bizikletaz joan eta etxe partikularretan hartu nuen ostatu euren egoera gertutik ezagutu nahi nuelako"*
**BIXENTE ASKASIBAR**
BIDAIARIA
2004-12-03

AZOKA

## Eskola Txikien jairako dirua jasotzeko azoka egin zuten

Gabonen bueltan sortu ohi den kontsumismo giroari aurre egiteko, eta bide batez, Eskola Txikien Jairako dirua jasotzeko bigarren eskuko gauzen Azoka Txikia antolatu zuten. .

Herritarrek eskolara eramandako bigarren eskuko hainbat gauzak ipini zituzten salgai hamar postutan: arropak, puzzleak, jostailuak, pelutxeak, heldu zein umeendako liburuak eta kirol materiala, poltsak, pitxiak, koadroak, ikus-entzunezko gaiak, gutiziak eta baita eskolako umeen argazkiak ere.

Postu hauetan Herri Eskolako umeek egin zituzten saltzaile lanak eta herritarrek gabonetako opariak erosteko baliatu zuten aukera.

Ikasle eta irakasleez gain, herriko alderdi politikoetako ordezkariak ere izan ziren azokan lanean. Hauek txosna ipini zuten plazan. /2004-12-03



Eskolako umeek saltzaile lanak egin zituzten hainbat postutan.



I L E A ILE APAINDEGIA

Orain solarium bertikala!

Marijok eta Anak gabon zoriontsuak opa dizkizuete!

Andra Mari plaza 2
Tel.: 943 76 81 97
Elgeta



B O L A T O K I

✓ Etxean egindako ogia
✓ Astean zehar menua
✓ Asteburuetan kazuelatxoak, ogitartekoak eta plater konbinatuak.

Gabon zoriontsuak igaro!

Artekale 2 Elgeta • 943 76 82 84







URTE BERRI ON ELGETAR GUZTIOI!

LAIBE

MAKINA-ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta.

# Kontuola

ANTZUOLA / Eguena / 2004ko abenduaren 23a / 227. zenbakia

# 2004 urteari begiratua

## ANTZUOLA




Era guztietako margolanak eta fatxaden garbiketak

Zorionak eta urte berri on!

943 76 64 07 616 277 999 Antzuola

# URTARRILA



*"Enpresak gehiago presionatu behar ditugu, umeak ditugun garaian erraztasun gehiago izateko"*
**KONTXI LASKURAIN**
DENDARIA
2002-01-23

HIRIGINTZA

## Hainbat proiekturen berri eman zuten jendaurrean

Udalak datozen urteetarako aurrez ikusten zituen hainbat proiektu aurkeztu zituen Jose Angel Zabalo alkateak, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri alboan zuela. Proiektu haietako askok Jaurlaritzaren Izartu programaren laguntza jasoko zutela espero zuten Udaleko arduradunek.

Hona hemen proiektuok: gaur egungo frontoia bota eta hantxe etxebizitzak egitea; Zupide eta Iriarte artean kiroldegia egitea; Gizarte Etxea eta gainean babestutako etxebizitzak eraikitzea, maristen eraikina zegoen tokian; bi bidegorri egokitzea; Uzarragako zubitik Elayra errepidea egitea, Haurreskola Partzuergoan sartzea, baserrietara edateko ura eramatea eta alde zaharra peatonalitzatzea./2004-01-16

ELKARTASUNA

### Saharara bidaltzeko 602 kilo elikagai batu zituzten herrian

Gipuzkoako herri gehienetan bezalaxe, Antzuolan ere Sahararako elikagaiak eta dirua batzen ibili ziren, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkarteak deituta. Olioa, lekaleak, azukrea, arroza... Guztira, 602 kilo batu zituzten. Bestalde, 1.832 euro ere eman zizkion herriak elkarte horri. /2002-01-30

KIROLDEGIA

### Kiroldegi berriaren aurreproiektua eginda dauka Udalak

Udalak urtarrilean aurkeztutako proiektuen artean, frontoia eraistea zegoen. Horretarako, kiroldegia egin beharra zegoen eta azkar egin zuten aurreproiektua. Azaldu zutenez, eraikina bi mailatan eraikiko litzateke: behean hainbat kiroletarako pista eta maila altuenean, frontoia, gimnasioa, aldagelak.... /2004-01-30

# OTSAILA



*"Gauzak aldatu egin behar dira, nahiz eta borrokatu behar izan"*
**IRAIA GABILONDO**
IKASLEA
2002-02-13



*"Angelen (presoa) senideek istripua izan eta banandu egin gintuzten"*
**PATXI OLABARRIA**
LANGILEA
2004-02-27

HEZKUNTZA

## Erantzukizunaren gaineko programa gurasoendako

Familian erantzukizunak banatu eta lankidetza sustatzeko programa bat jarri zuten abian Herri Ikastetxean; gurasoei zuzendu zieten programa hori. Euskal Herriko Unibertsitateak antolatu zuen programa hori.

Hamabost bat gurasok jardun zuten programa horretan, eta, EHUko adituen laguntzarekin, hainbat gai landu zituzten: familiarteko lana, seme-alaben parte hartzea etxeko lanetan, komunikazioa familian, autoritatea eta diziplina, familiako gatazkak...

Hainbat gurasoren iritzia jaso genuen; hona hemen Mirari Lamarianok adierazi ziguna: "Familia osoarendako onuragarria izango delakoan eman nuen izena programa honetan parte hartzeko". /2004-02-20

HIRIGINTZA

### Txorikua etxea botatzen hasi ziren otsailaren 16an

Kalegoiko Txorikua etxea eraisten hasi ziren. Sagasti eta Kalegoi batzen dituen errepidea egitea zen helburu nagusia. Aste batzuk iraun zuten etxea eraitsi eta errepidea egokitzeko lanek. Gaur egun alde zaharra eta Sagasti auzoa lotuta daude han egindako errepidearekin. /2004-02-20

ELKARTASUNA

### Senegalgo misiolaria herria ezagutzera etorri zitzaigun

Senegalen misiolari diharduen Montserrat Dauso kataluniarra herrian izan genuen. Azkeneko urteotan antzuolar ugari egon da Senegalgo Casamance eskualdean; Anelkarrek behin baino gehiagotan batu izan du dirua hara bidaltzeko. Gauzak horrela, herria ezagutzera etorri zen Montserrat. /2004-02-13



Danok-Bat elkartean afaria egin zuten.

GAZTETXEA

### Batzar orokorra egin zuen Antzuolako Gazte Asanbladak

Batzar orokorra egin zuen AGAk, eta erabaki zuten behin-behineko gaztetxearen alde egitea eta berehala proiektua egiten hastea.

Udaleko arduradunek, bestalde, zera adierazi ziguten: Udalak denerako adina diru ez daukanez, behin betiko gaztetxe izango denari emango diotela lehentasuna. /2004-02-13

Ondo pasau Gabonak!



Gabilondo-Arregi
harategia
ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA
Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

TXOMIN GARAJEA
ZORIONAK GUZTIOI!
ad
Tailer profesionala
Mekanika orokorra
IAT/ITVrako prestaketa
Lizarraga auzoa. Antzuola. Tel. 943 78 70 77

# MARTXOA



*"Nekazaritza ekologikoa gertutik ezagutzera etorri naiz Lapatzara; sei hilabete egin ditut hementxe"*
INES MENDEZ
ABOKATUA ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN IKASLEA
2004-03-05

HIRIGINTZA

## Bost proiektu aurkeztu zituen Udalak, Izartu programarako

Martxoaren 22an bukatzen zen Eusko Jaurlaritzaren Izartu programarako proiektuak aurkezteko epea. Astebete lehenago egin zuten osoko bilkura, proiektu horiek onartzeko.

Batetik, Etxezuri ondoko zubitik Lizarragarako errepidearen proiektua aurkeztu zuten.

Bestetik, alde zaharreko lurzorua eta azpiegiturak berritzeko proiektua onartu zuten bilkura hartan; Ibarre auzoa urbanizatzeko proiektua ere proposatu zuen Udalak, batez ere, dagoen aparkaleku faltari irtenbidea emateko.

Sagasti auzoari dagokionez, berriz, hango zelaian parke bat egiteko proiektua aurkeztu zion Udalak Eusko Jaurlaritzari.

Azkenik, gizarte edo kultura etxearen proiektua eta etxebizitzak eraikitzea. Guztira, sei milioi euroko aurrekontua zuten bost proiektuok. /2004-03-26



Izartu programarako aurkeztu zuten Ibarre auzoa urbanizatzeko proiektua.

# APIRILA



*"Beti gazte, argal eta guapa egon biharrak lotu egitten gaittu"*
AINHOA UGARTEBURU
SOZIOLOGOA
2004-04-07



*"Hiru plataforma handi egiteko asmoa dago errekaren gainean"*
JOSE ANGEL ZABALO
ALKATEA
2004-04-30

AURREKONTUAK

## Udalak 2.585.797 euroko aurrekontua onartu zuen

Apirileko osoko bilkuran, hilaren 2an, onartu zuen udalbatzarrak 2004ko aurrekontua; guztira, 2.585.797 euro. Iazkoaren alderatuta, %6,7 egin du behera aurrekontuak. Horren arrazoi nagusia da Etxebizitza eta Hirigintza batzordeak iaz 1.250.000 euroko aurrekontua izan zuela.

Aurrekontu osoaren %23,9 inbertsioetara bideratuko dute. Ohikoa den moduan, Etxebizitza eta Hirigintza batzordean aurrez ikusi zituzten inbertsio handienak: 336.314 euro, hain zuzen ere.

Aurrez ikusi zituzten inbertsio aipagarrienak hauexek izan ziren: erretiratuen egoitzarako, 6.000 euro; haurtzaindegiaren lokalerako, 170.000 euro; errekaren gainezkabidearendako, 85.000 euro; gizarte etxerako, 20.000 euro; gazteendako lokalerako, 9.500; futbol zelaiaren eta kiroldegiaren proiektuak idazteko, 5.000. /2004-04-07



Errekaren gainezkabidearendako 85.000 euro inbertitzea aurrez ikusi zuten.

IDOLAZ

### Komertzioetan euskaraz egiteko kanpaina abian

Idolazek komertzioetan euskara bultzatzeko kanpaina jarri zuen abian; horretarako, *Hemen be euskaraz ein zeinke* dioten txarteltxoak banatu zituzten. Iazko irailean taldea berrantolatu zutenetik, hauxe izan zen kalera begira egin zuten lehenengo ekimena. /2004-04-02

NEKAZARI TURISMOA

### Ibarre baserrian lau logela gehiago egokitu zituzten

Ibarre nekazari turismo baserrian lau logela berri egokitu eta apirilean egin zuten inaugurazio ekitaldia. Horrela, apirila ezkero zortzi logela eta hamasei lagunendako tokia dute baserri horretan; gainera, herrian ostatu hartzeko aukera eskaintzen duen toki bakarra da. /2004-04-23

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

LEKY-BERRI MERENDEROA
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI
taberna jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

Itzar
LIBURU DENDA ESTANKOA
Zorionak guztioi!
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tf. 943 76 60 62

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19
INDUSTRI MANTENIMENDUA


Juan Cruz
ARGAZKIAK
Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak
Estudioko argazkiak
BITXITEGIA
Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak
Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

KONTUOLA
Eguena / 2004ko abenduaren 23a

# MAIATZA



*"XX. mende hasieran jaio ziren herritarrengandik garai hartako kontuak jasotzea da gure lanaren helburua"*

**ITZIAR ALBERDI**
BADIHARDUGU ELKARTEKOA
2004-05-14

ONDAREA

## Mairuaren Alardearen Elkartea aurkeztu zuten hilaren 27an

Maiatzaren 27an egin zuten Mairuaren Alardearen Elkartearen aurkezpena. Udaleko, Diputazioko eta Jaurlaritzako ordezkariek parte hartu zuten hantxe.

Elkarte horren helburua da alardea babestea, bultzatzea eta indarberritzea. Bestelako ondareak babesten eta zaintzen diren moduan, ohiturak ere ondarea direla adierazi ziguten elkarteko kideek, eta alardea ohitura den heinean, babestu beharreko ondarea dela diote. Alardean herritarren parte hartzea bultzatzea da euren beste helburu bat.

Elkartea sortu zutenean, bost lagunek bakarrik ziharduten lanean. Urte luzetan alardean kapitainaren papera bete duen Jose Luis Kortabarria da elkarteko presdentea./2004-05-21

ETXEBIZITZAK

## Udal Etxegintzaren etxebizitzak eman zituzten maiatzean

Udalak bultzatutako Sagastiko etxebizitzetako jabekide gehienek maiatzeko lehenengo astean jaso zituzten giltzak. Gainerakoek maiatzean zehar sinatu zituzten eskriturak.

Aurretik, bazeuden 32 etxebizitza Udalak bultzatutakoak; guztira, era horretako 48 etxebizitza daude herrian. /2004-05-07



Sagasti auzoan daude etxebizitzok.

# EKAINA



*"Oso pozik nago Realean jokatzeko aukera izan dudalako"*

**MARKEL LETE**
FUTBOL JOKALARIA
2004-06-04



*"Gaztegunean, gaztetxoek proposatu eta antolatzen dituzte ekintzak"*

**GORETTI FERNANDEZ**
GAZTEGUNEKO ARDURADUNA
2004-06-18

HIRIGINTZA

## Gizarte etxea Sagastin egitea jaso zuten aurreproiektuan

Gizarte etxearendako aurreproiektua egin zuen Udalak ekainean. Bertan jaso zutenez, Sagastiko zelaian egingo dute gizarte etxea eta lehen maristen eraikina zegoen tokian etxebizitzak egingo dituzte. Urtebete barru lanekin hasteko asmoa zutela adierazi zuten Udaleko arduradunek.

Aurreproiektu hori herriko hainbat auzotako bizilagunen aurrean aurkezten jardun zuten Udaleko arduradunek ekainean zehar.

Aurkezpen horietan azaldu zutenez, gizarte etxean, besteak beste, honako zerbitzuok egongo lirateke: medikuaren kontsulta, erretiratuendako lokala, zinema, kafetegia eta nagusiendako eguneko zentroa.

Kiroldegia egiteko asmoarekin ere aurrera jarraitzen dutela azaldu zuten Udaletik. /2004-06-25



Gizarte etxea Sagastiko zelaian egitea jaso zuten aurreproiektuan.

KIROLA

## Denondako Kirol Jaia ospatu zuten ekainean herrian

Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta, XII. Denondako Kirol Jaia ospatu zuten Antzuolan, ezinduendako jaia, hain zuzen ere.

Ibarreko 60 bat ezindu fisikok eta psikikok parte hartu zuen jai horretan. Helburua zen ibarreko herrietako jendeak elkar ezagutzea. /2004-06-11

KULTURA

## 'Zinea izarpean' programa abian jarri zuen Udalak

*Zinea izarpean* programa berria abiarazi zuen udarako Udaleko Kultura Batzordeak. Ekainaren 4an hasi eta uztailaren 23ra arte, ia egubakoitzero eskaini zuten film bat, frontoi txikian.

*El ultimo Samurai*, *Love actually*, *Mi vida sin mi* eta *Dias de futbol* filmak eskaini zituzten, besteak beste. /2004-06-04



Antzuolako Udalak gabon zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizue herritar guztioi!

Antzuolako udala
www.antzuola.com

SUKALDEKO HALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

• Sukalderako eta bainurako altzariak
• Altzari rustikoetan espazializatuak

Zurrategi plaza 4 behea • Tel.: 943 78 71 80/Faxa: 943 78 60 24

# UZTAILA



*"Vilariñorekin lan egitea ikasteko aukera paregabea da niretako"*
**ANDOITZ PEÑAGARIKANO**
VILARIÑOREN LAGUNTZAILEA
2004-07-16



*"Ez da gutxi izan lehiaketako finalera iritsi izana; oso pozik nago"*
**BEGOÑA EGAÑA**
'LA FLECHA AMARILLA'KO LEHIAKIDEA
2004-07-23

GOITB

## Herriko etxe askotan GOITB ikusten hasi ziren uztailean

Ekainean jarri zuten Altzeta baserriaren ondoan herrian GOITB ikusi ahal izateko antena. Gauzak horrela, uztailean hainbat etxebizitzatan ikus zitekeen Goiena Telebista. Beste etxebizitza batzuetan, baina, ez zegoen ibarreko telebista ikusteko aukerarik. Kontua zen antena kolektiboa duten etxebizitza-multzoetan 40. kanalerako anplifikadorea jarri behar zela. Anplifikadore hori jartzea ez da batere garestia, batez ere, kontuan hartuta bizilagun guztien artean ordaindu beharrekoa dela. Hala eta guztiz ere, etxebizitza-multzo batzuetan oraindik ez dute jarri. Antena arrunten kasuan, berriz, nahikoa izan zuten telebista sintonizatzearekin.

GOITB herrian ikusteko aukerak bat egin zuen herriko jaiekin eta jaien gaineko programa berezia ikusteko aukera izan genuen. /2004-07-16

EUSKARA

### Herriko enpresak batu ziren euskara bultzatzeko

Enpresa munduan euskara planak indartzeko helburuarekin, herriko hiru enpresa nagusietako ordezkariek (Goizper, Elay eta Matz-Errekakoek) lehendabiziko batzarra egin zuten. Ordura arte, enpresa bakoitzak bere kasa jardun zuen lanean euskararen alde. /2004-07-02

HAURRESKOLA

### Haurtzaindegia otsailean zabaltzeko asmoa azaldu zuten

Uztaileko osoko bilkuran haurtzaindegia eraikitzeko lanak esleitzeko baldintza plegua onartu zuen udalbatzarrak. Irailean lanekin hasiko zirela iragarri zuten Udaleko arduradunek, nahiz eta azkenean abuztuan hasi zitzuten lanok. Azaldu zigutenez, Udalak 300.000 euro inbertituko ditu lan horietan. /2004-07-09

PILOTA

### Debarroko txapelketa irabazi zuten Olalde elkarteko kadeteek

Debarroko txapelketa irabazi eta Antzuolara ekarri zuten txapela Aitor Mendizabal eta Aitor Jauregi Olalde elkarteko kadete mailako pilotariek; Asier Longaresek ere parte hartu zuen txapelketa horretan. Alebin mailako pilotariak, berriz, bigarren geratu ziren eskola arteko Debarroko txapelketan. /2004-07-02

UDALA

### Gertu Gae-k kritikatu egin zituen proiektuak

Gizarte etxea Sagastin eta maristen eraikina zegoen tokian etxebizitzak egiteko Udalak duen asmoaren aurrean, proiektu horiekiko desadostasuna erakutsi zuten Gertu Gae-ko kideek prentsaurrekoan. Bide batez, errekaren proiektuaren gainean ere jardun zuten. /2004-07-09

# ABUZTUA



*"Debagoienak, Euskal Autonomia Erkidegoko laugarren hiriak, ez du goigoi mailako kirol talderik"*
**JOSEBA LEZETA**
KAZETARIA
2004-09-03

HAURRESKOLA

## Abuztuan hasi ziren eskolan haurtzaindegia egokitzen

Uztaileko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzarrak haurtzaindegia eraikitzeko lanak esleitzeko baldintza pleguak. Lan horiekin irailean hasteko asmoa zuten arren, azkenean, abuztuan ekin zieten lanoi.

Era horretan, Udaleko arduradunen helburua zen ikastetxeko neska-mutikoek ikasturte berriko eskolak hasi aurretik lanik zaratatsuenak eta zikin handiena sortzen dutenak bukatuta egotea.

Udalak hartu ditu bere gain haurtzaindegia eraikitzeko lanak; 300.000 bat euro inbertitu ditu horretan.

Udalak jakinarazi zigunez, euren asmoa zen haurtzaindegia otsailerako martxan egotea. Behin lanak amaituta, Haurreskolak Partzuergoak hornituko du haurtzaindegia. /2004-09-03



Abuztuan ekin zieten lanei, eskolak hasterako lanik handienak bukatuta izatearren.



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia
•
Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ibarreta z/g 20577
Antzuola
Tel. + 34 943 78 60 09
Faxa + 34 943 78 70 34

http://www.matz-erreka.com

ERREKA®

Ate eta pertsianak zabaltzeko automatismoen fabrikazioa

# IRAILA



*"Uste oker asko dago oraindik yogaren inguruan: yoga ez da erlijio bat, ez da gimnasia, ez da kirola eta ez da sekta bat"*
**JOSE LUIS ARMENDIA**
YOGA IRAKASLEA
2004-09-10

GAZTEAK

## Bertso-afaria eginda ireki zituen ateak gaztetxeak

Irailaren 27an zabaldu zuten gaztetxea. Inauguraziorako ekitaldi ugari antolatu zituzten Gazte Asanbladako kideek.

Aste hartan bertan jarri zuten martxan estraktorea eta herritarrek emandako mahaiak eta aulkiak ere jarri zituzten.

Arratsaldean poteoa egin zuten gazteek trikitilariekin eta bertsolariekin; gauean, berriz, bertso afaria, Xabier Silveira eta Jokin Urangarekin.

Gazte Asanbladako kideek azaldu zigutenez, oraindik erabaki gabe zuten gaztetxeak zela funtzionatuko zuen. Dena dela, gauza bat hasieratik zuten zehaztuta: nahi zuten gazte koadrila guztiek izango zituzten giltzak, baita hainbat betebehar ere. /2004-09-27

FUTBOLA

### Lau futbol taldeak osatzea lortu zuen azkenean AKEk

Nahiko lan izan zuten AKEko arduradunek futbol talde guztiak osatzea lortzeko. Beldur ziren ez ote zuten lortuko erregional mailako taldea osatzea; azkenean, baina, lortu zuten.

Irailean talde guztiak osatuta zituzten arren, entrenatzaileak behar zituztela adierazi ziguten zuzendaritzakoek. /2004-09-03

PRESOAK

### Karmen Irizar presoa zigorraren hiru laurdenak betetzear

Irailean jakin genuen, Karmen Irizar presoak urrian beteko zituela kartzela zigorraren hiru laurdenak. Hala ere, ez zuten aske laga. Zigor osoa bete arte kartzelan jarraituko balu, 2006ko apirilean lagako lukete aske.

Martxoa ezkero, Madrilgo atentatuen egunetik, lehen graduan zegoen Karmen. /2004-09-17

# URRIA



*"Hamalau urte hauetako grabazio guztiak 60 DVDtan jasoko ditugu"*
**JESUS ETXEBERRIA**
BIDEO-ZALEA
2004-10-01



*"Gorputz espresioa landu eta lotsak alde batera lagatzen ikasiko dugu"*
**BEATRIZ EGIZABAL**
ANTZERKI IKASTAROKO IRAKASLEA
2004-10-08

SENIDETZEA

## Aiherra eta Antzuola lotu zituen Lasterkaldiak urrian

Aiherra eta Antzuolaren arteko harremana hasi zeneko hogeigarren urteurrena betetzen zela eta, Lasterkaldia antolatu zuten herri bietako herritarrek. Urriaren 29an Aiherran hasi eta hurrengo egunean Antzuolan amaitu zen korrikaldi hori.

Lasterkaldia hasi aurretik, bi herrien arteko senidetzearen hitzarmen ofiziala sinatu zuten Aiherran, Jose Angel Zabalo Antzuolako alkateak eta Jean Paul Basterretxe Aiherrako auzapezak.

Guztira, 150 kilometro egin zituzten korrikalariek; ondoren, Antzuolan hainbat ekitaldi izan genituen. Herriko plazan izan ziren lehenengo ekitaldiak: lekukoan zetorren idatzia irakurtzea, bertsolariak, jolasak... Ondoren, herri bazkaria egin zuten herriko frontoian. /2004-11-05



Andre Martinon aihertarra eta Eukene antzuolarra, lekukoarekin.

BIZTANLERIA

### Herria 2.000 biztanle izatera iritsi zen berriro urrian

Urrian 2.004 biztanle izatera iritsi zen Antzuola; horixe da azkeneko hamar urteotan herriak izan duen biztanle kopuru handiena. Maite Solaun bergararra izan zen bi milagarren biztanlea, eta hainbat oparirekin eman zion ongi-etorria Udalak; Antzuolaren gaineko liburu, bideo eta eskuorri sorta batekin. /2004-10-01

EUSKARA

### Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zuten

UEMAk Antzuolako Udalarendako egindako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zuen udalbatzarrak urriko osoko bilkuran.

Helburua lortzeko hiru ildo zehazten ziren: herritarrekiko, beste administrazioekiko eta barruko harremanetarako hizkuntza euskara izatea. /2004-10-15

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ELAY Taldea
Zorionak eta urte berri on!

margolan
margoak
- margo orokorra
- margo dekoratiboa
- umeentzako dekorazioak
- feng shui estudioak
- bidrierak
Sagasta auzoa Zª 5-3D
20577 ANTZUOLA-HERNANI
Tel.: 943 76 62 13
665 733 955
687 570 777
Gabon zoriontsuak Antzuolarroi!

Ainhoa
drogeria
ONDO IBILI GABONETAN!
Kalebarren 13, ANTZUOLA

OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA
ONDO PASAU GABONETAN!
ALTZARTE
Kalebarren 18. 943 76 62 94

# AZAROA



*"Hasieran uste genuen baino jende gehiago ibiltzen da gaztetxean"*
**TXOMIN ALBERDI**
GAZTE ASANBLADAKO KIDEA
2004-11-05



*"Kulturalki, gure herria da Euskal Herria; politikoki, Nafarroa"*
**ERLANTZ URTASUN**
NABARRALDE ELKARTEKO KIDEA
2004-11-12

ELKARTASUNA

## Kongorako dirua batu zuen Anelkarrek Elkartasun Festan

Elkartasun Festa egin zuen Anelkarrek azaroaren 27an, Kongorako dirua batzeko. Kongoko Kansenia herrian eskolak egiteko eta hango umeei ikasturtea ordaintzeko erabili zuten Elkartasun Festan batutako dirua.

Bittor eta Andres Arbulu berriro egon dira Kansenian aurtengo udan. Han ateratako argazkiak erakusgai jarri zituzten Zurrategi plazan, eta bi anaiak hantxe egon ziren, nahi zuten herritarrei azalpenak emateko.

Azkeneko urteotan, urtero egon dira Kongon Andres eta Bittor; lehenengo, Kansenia herrira ura eramateko azpiegiturak egiten ibili ziren. Orduan, horretarako batu zuen dirua Anelkarrek.

Argazki erakusketaz gain, Bidezko Merkataritzako postua, trikitilariak, umeendako jolasak eta pintxoak eta txokolatea egon ziren. /2004-11-26



Batutako dirua Kansenian eskolak eraikitzeko izan zen.

KULTURA

## Antzuolaren gaineko bideoa aurkeztu zuten

*Barne-barnetik* herriaren gaineko bideoa aurkeztu zuten azaroaren 14an. Herriaren historia, ondarea, kultura eta ohiturak azaltzen zaizkigu ikus-entzunezko horretan; baita urte oso baten herrian izandako gertaera adierazgarrienak ere. 12 euroan jarri zuten salgai. /2004-11-12

PAUSOKA

## Batzordekide berriak aukeratu zituzten azaroan

Urteko batzar orokorrean, batzordekide berriak aukeratu zituen Pausokak; honako hauek, hain zuzen ere: Iñigo Irizar, Mari Karmen Iturbe, Junkal Bakaikoa, Yolanda Miner eta Garbiñe Lizundia. Beste bost batzordekidek, berriz, laga egin zuten Zuzendaritza Batzordea. /2004-11-26

# ABENDUA



*"Askotan lan haundixagua hartzen dogu ingurukuen bizitza kontrolatzen geuria hobetzen saiatzen baino"*
**ALAITZ JAUREGI**
LANGILEA
2004-12-03

HAURTZAINDEGIA

## Haurreskolak Partzuergokoak bisitan izan ziren eskolan

Haurreskolak Partzuergoko arduradunak haurtzaindegiko lanak ikusten egon ziren; eurekin batera egon ziren Udaleko eta Herri Ikastetxeko arduradunak ere. Partzuergoko arduradun Maite Larrañaga; Gipuzkoako koordinatzaile Xabier Otaegi; haurtzaindegiaren proiektuan aholkularitza lanak egin dituen Juanjo Kintela pedagogoa eta Juan Antonio Rico proiektuaren eta lanen zuzendaria egon ziren Antzuolako haurtzaindegia izango dena ikusten.

Azkeneko ukituak besterik ez zitzaizkien falta haurtzaindegia egokitzeko lanei. Hormak margotzea, besterik ez. Hortxe bukatzen dira Udalaren eginbeharrak; haurtzaindegiko altzariak eta materiala jartzea eta eskolaren kudeaketa, Partzuergoaren eginbeharrak izango dira. Haurtzaindegia otsailean zabaltzea espero dute. /2004-12-03



Partzuergoko, Udaleko eta Herri Ikastetxeko arduradunak.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel./Faxa: 943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA



Zabalo Iturgintza S.L.
Bidea eginez
Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73
• Gasa
• Berogailuak
• Haire egokitua
• Enpresen mantenimendua
• Lurrun instalazioak
• Bero-aurreztea
• Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBAren bidez
• Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu
Gabon zoriontsuak igaro!

EAJ
PNV
Antzuolako eutzko alderdi jeltzaleak, gabon zoriontsuak opa dizkizu, eta urte berrira begira zure ilusio eta nahiak, bete daitezela.

martin
okindegia
Langela:Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
ANTZUOLA
Urte berri on antzuolar guztioi!

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

GOIZPER KOOP. ELK.

MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUAK.

GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
  - PNEUMATIKOAK
  - HIDRAULIKOAK
  - MEKANIKOAK
  - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK

ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)
211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA
TEL.: 943 786000
FAXA: 943 766008 - 943 787095
E-MAILA: goizper@goizper.com
Web gunea: www.goizper.com




HIRU AROZTEGIA

ATEAK • LEIHOAK • ZORUAK • HORMA ARMAIRUAK









ANTIGUA AUZOA 8 • Telefonoak: 943 76 63 59 / 678 61 50 27 / 28 • 20577 ANTZUOLA